



Txosten orokorrak

# Nafarroako Kontu orokorrak (2020)



*2021eko azaroa*



CÁMARA DE  
COMPTOS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
KONTUEN  
GANBERA

[www.camaradecomptos.org](http://www.camaradecomptos.org)

**AURKIBIDEA**

ORRIALDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA .....	3
I. SARRERA .....	5
II. NAFARROAKO FORU SEKTORE PUBLIKOA .....	6
II.1. Foru sektore publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera .....	6
II.2. Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorea, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera .....	9
II.3. Aplikatzekoa den arau-esparrua .....	11
III. HELBURUAK ETA IRISMENA .....	12
IV. IRITZIA .....	15
IV.1. 2020ko urteko kontuei buruzko finantza-auditoretzaren iritzia .....	16
IV.2. Legeria betetzearen fiskalizazio-iritzia .....	18
V. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUEN LABURPENA, 2020KO EKITALDIA .....	19
V.1. 2020ko aurrekontuaren likidazioa .....	19
V.2. 2020ko aurrekontu-emaizta .....	20
V.3. Diruzaintza-gerakina 2020ko abenduaren 31n .....	20
V.4. Egoeraren balantzea 2020ko abenduaren 31n .....	21
V.5. 2020ko emaitzen kontua .....	22
VI. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK .....	24
VI.1. 2020ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak .....	24
VI.2. NFKAren eta haren EEAAen egoera ekonomiko-finantzarioa 2020ko abenduaren 31n .....	29
VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioak .....	31
VI.4. Kontuen Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea .....	33
VI.5. Langile-gastuak .....	34
VI.6. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak .....	42
VI.7. Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapital- transferentziengatiko gastuak .....	48
VI.8. Inbertsioak eta ibilgetu ez-finantzarioa .....	56
VI.9. Zergak, tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak .....	59
VI.10. Bestelako diru-sarrerak .....	64
VI.11. Epe laburreko zordunak eta hartzekodunak .....	65
VI.12. Diruzaintza .....	67
VI.13. Zorpetzea eta beste finantza-eragiketa batzuk .....	69
VI.14. Sozietate eta Fundazio Publikoak .....	72
2020KO KONTU OROKORRAREN OROITIDAZKIAREN LABURPENA .....	77





## Laburpen exekutiboa

Kontuen Ganberak Nafarroako 2020ko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditu.

Honako hauek dira gure lanaren konklusio nagusiak:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2020ko abenduaren 31ko urteko kontuek zehatz islatzen dute, alderdi esanguratsuetan, ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitza ekonomiko eta aurrekontukoaren irudia. Halere, salbuespen batzuk badaude, zerikusia dutenak Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean jasotako araudia guztiz ez aplikatzearekin; informazioa zergen kobrantzak kudeatzen dituen aplikazio informatikotik kontabilitate-sistema informatikora behar bezala ez transferitzearekin; inbentariarik ez egotearekin; eta montepioak sortutako betebeharrak ez erregistratzearekin. Salbuespen horiek behin eta berriz eta antzera agertu dira erakunde honek 1981eko kontuak ikuskatu zituenetik.

- 2020ko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzeak zaizkion arauekin. Salbuespen bat aipatzen da: 194,24 milioiko indarraldia amaitu zaien edo kontratu-oinarririk ez duten prestazioengatik ordaindutako gastua.

- 2020an, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren egoera ekonomiko-finantzarioak okerrera egin du, oro har, eta 2016-2019 aldian hobekuntza nabarmena izan zuen adierazleei dagokienez. Hala ere, badago oraindik zenbateko handiko zorra. 2020an ehuneko 12 igo da, eta 3.311 milioira iritsi da. Zorra datozen urteetan amortizatu beharra dago, eta bi alderdik baldintzatzen dute nabarmen: ezarritako egutegiak eta finantza-merkatuen interes-tasaren aldaketak.

- Finantza-karga 2019. urtearekin alderatuta gutxitu egin da, besteak beste, ez delako kopuru handiak aurrez amortizatzeke ahalmenik izan. Zorra amortizatzeke egutegiak esan nahi du guztizkoaren ehuneko 54 2027 baino lehen amortizatu behar dela. Epe luzeko zorrari dagokionez, 2020ko irailean rating-agentzia batek Nafarroari hauxe eman zion: “AA- kalifikazioa, perspektiba negatiboarekin”. Maila hori baimendutako gehienekoa da Estatuaren kalifikazioa kontuan hartuta, eta 2021ean eutsi egin zaio.

- Langileei dagokienez, langile finkoen alden eta baje kopuruan aldaketa garbi negatiboa dagoen arren, aipaturiko alde hori nabarmen murriztu da. Hala eta guztiz ere, lanpostu hutsen kopuruak gora egin du, eta egiturazko beharrak eta behar iraunkorrak aldi baterako langileekin betetzen dira. Alabaina, lan-eskaintza publikoak onartu dira, eta dagozkien deialdietan zehaztu beharko dira. Azken batean, enpleguaren behin-behinekotasuna handitu egin da, eta 2020ko





abenduaren 31n ehuneko 54ko indizea lortu da. Gure ustez, ehuneko hori gehiegizkoa eta kezkarria da, eta giza faktorearen nolabaiteko deskapitalizazioa dakar.

- Inbertsioetako gastua 142,14 milioirainokoa da. Zifra hori oraindik ere txikia da, eta 2011n egikaritutakoaren ehuneko 73 da, baina 2020an ehuneko bost handitu da 2019. urtearekin alderatuta.





## I. Sarrera

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea betez eta 2021erako bere jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Kontu Orokorrak fiskalizatu behar ditu; kontu horiek foru sektore publikoa osatzen duten entitateen kontuak hartzen dituzte.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau ere barne. Bigarrenak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin (aurrerantzean NFKA) zerikusia duten alderdi orokorrak biltzen ditu, eta hirugarrenak gure lanaren helburuak eta irismena adierazten ditu. Laugarrenean, gure finantza-iritzia eta legea betetzeari buruzkoa ageri dira, NFKAren eta haren EEAAen 2020ko ekitaldiko urteko kontuei dagokienez; bosgarrenak kontabilitateko egoera-orri nagusien laburpen bat dauka; eta seigarrenean, hauei buruzko konklusio eta gomendioak: NFKAren eta haren EEAAen 2020ko abenduaren 31ko aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasun eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen betetzea, Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendio nagusien jarraipena, beste kudeaketa arlo garrantzitsu batzuk, eta enpresen eta fundazioen sektore publikoaren gainekoa.

Azkenik, txostenak Nafarroako Kontu Orokorren 2020ko ekitaldiko oroitidazkiaren laburpen bat badauka, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak egina. Haren testu osoa hemen kontsulta daiteke:

[https://www.navarra.es/home\\_es/Gobierno+de+Navarra/Presupuesto/Cuentas/Cuentas+2020](https://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Presupuesto/Cuentas/Cuentas+2020)

Landa-lana 2021eko ekaina eta iraila bitartean egin dute auditoriako sei teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzan ere izan dute.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu NFKAko, haren EEAAetako, sozietate publikoetako eta fundazio publikoetako langileei.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak ezagutzera eman ziren, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak alegazioak aurkez zitzan.

Kontseilari horrek ez du alegaziorik aurkeztu Kontuen Ganberak ezarritako epean; hori dela eta, txostena behin betikotzat jo da.





## II. Nafarroako Foru Sektore Publikoa

Foru sektore publikoaren 2020ko zedarritzea bi ikuspuntutatik azter daiteke:

- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen arabera.
- Aurrekontu-egonkortasunaren eta Finantza-iraunkortasunaren Lege Organi-koaren (AEFILO) arabera.

### II.1. Foru sektore publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera


Honako hauek dira 2020an foru sektore publikoa osatzen dutenak, aipatutako 13/2007 Foru Legearen eraginetarako:

- NFKA eta hari atxikitako EEAAk.
- Nafarroako Parlamentua eta haren menpeko organoak; hau da, Kontuen Ganbera eta Arartekoa.
- Nafarroako Kontseilua.
- NFKAren eta haren erakunde publikoen sozietate publikoak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.
- NFKAk sortutako fundazio publikoak eta haren erakunde publikoak, baita, pribatuak izanda ere, geroztik publikotzat hartuak izateko baldintzak betetzen dituztenak ere.





Hauxe zen foru sektore publikoaren 2020ko abenduaren 31ko irudikapen grafikoa:



Aurreko irudia aztertuta, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:





• 2020ko abenduaren 31n, NFKAren egiturak hamahiru departamentu zeuzkan; horietatik, hamar EEAARI atxikita zeuden.

• NFKAk 16 enpresaren partaidetzen gehiengoa zeukan, aipatutako datan. Ez dago aldaketarik 2019aren aldean. Zuzenean parte hartzen zuen Corporación Pública Empresarial de Navarra SLU (CPEN, aurrerantzean) enpresan, zeinean kapitalaren ehuneko 100 baitzeukan, eta, zeharka, berriz, CPENen bitartez, honako 15 entitate hauetan:

Enpresa publikoa	Partaidetzaren ehunekoa CPEN	Jarduera ekonomikoa
Centro Europeo de Empresas e Innovación SL (CEIN)	100	Berrikuntza eta ekintzaileak
Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas SA (CNAI)	100	Hezkuntza eta talentua
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL (CAT)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Gestión Ambiental de Navarra SA (GAN)	100	Ingurumena
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (Intia)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)	100	Azpiegitura tematikoak, kulturalak, aisia eta kirola
Navarra de Infraestructuras Locales SA (Nilsa)	100	Tokian tokiko azpiegiturak
Navarra de Servicios y Tecnologías SA (Nasertic)	100	Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
Navarra de Suelo y Vivienda SA (Nasuvinsa)	100	Lurzorua eta etxebizitza
Potasas de Subiza SAU (Posusa)	100	Ingurumen jarduera eta Industria-sarea birsortzea
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (Sodena)	100	Sustapen ekonomikoa eta finantzazioa
Trabajos Catastrales SA (TRACASA)	100	Katastroa, kartografia
Tracasa Instrumental SL		
Salinas de Navarra SA	76	Gatza eta deribatuak ekoiztea eta merkaturatzea
Start Up Capital Navarra SL	68,46	Enpresen sustapena

• NFKAren fundazio publikoak, 2020ko abenduaren 31n, sei ziren, honako xehetasun honen arabera:

Fundazio publikoa	Xedea
Baluarte	Baluarte jauregian kultur jarduerak sustatzea
Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbazioa	Kultur intereseko ondasunak kontserbatu eta zaharberritzea
Miguel Servet	Ikerkuntza sanitarioaren sustapena
Pertsona Helduen Tutoretza	Pertsona adindunen eta ezgaituen arreta eta tutoretza
Miguel Induráin	Kirola eta ariketa fisikoa sustatu eta garatzea Nafarroan
Gizarte Zerbitzu Publikoen Kudeaketa-Gizain	Hainbat gizarte-zerbitzu publiko kudeatzea, eta zerbitzu horiek zuzenean eman eta gauzatzea

NFKAren Nafarroako Kontu Orokorraren oroitidazkiak IdiSNA Fundazioa (Nafarroako Ikerketa Sanitarioko Institutua) sartzen du foru-sektore publikoaren partetzat. Horri dagokionez, esan behar dugu ez dagoela oharpen hori ezartzen duen gobernu-akordiorik.







Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen ekonomia- eta langile-datu nagusiak, 2020ko abenduaren 31n, Kontu Orokorren oroitidazkian zabaldua eta iruzkinduta, honako hauek dira:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa:

	Zenbatekoa (milakotan)
Aitortutako eskubideak	4.730.799
Aitortutako betebeharrak	4.586.995
	Pertsona kopurua
Langileak 2020ko abenduaren 31n	31.730

- Sozietate publiko bateratuak:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

	Ekitaldiko emaitza	Foru. Adm. dirulaguntzak	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Enplegatuen batez besteko kop.
Datu bateratuak	-7.714	22.135	58.355	656.107	1.2840

- Fundazioak:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Fundazioak	Ekitaldiko soberrakina	Ondare garbia	Enplegatuen batez besteko kop.
Guztira sei fundazio publiko	410	3.284	272

- Beste entitate batzuk:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Erakundea	Eskubide aitortuak	Aitortutako obligazioak	Foru Ogasunari itzultako gerakina	Langileak, 2020/12/31
Nafarroako Parlamentua	14.858.916	12.282.977	2.507.722	69
Kontuen Ganbera	3.005.487	2.628.779	392.822	35
Arartekoa	792.900	730.174	62.726	8
Nafarroako Kontseilua	381.346	245.666	135.680	2

II.2. Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorea, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera.

Kontabilitate nazionalari dagokionez (SEC'20), 2020rako, honako hauek josten dira Nafarroako Administrazio Publikoaren sektoretzat:

- NFKA eta haren EEAAk.
- Nafarroako Parlamentua eta haren mendeko erakundeak.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoa ente publikoa.
- Nafarroako Gazteriaren Kontseilua.





- Foru Komunitateko sozietate publikoak, gehienbat merkataritzako diru-sarrerekin finantzatzen ez diren zerbitzuak ematen dituztenak edo ondasunak sortzen dituztenak. Zehazki, 2020rako administrazio publikoen sektoretzat hartzen dira 14 sozietate hauek: CPEN, CNAI, CEIN, CAT, GAN, Intia, NICDO, Naser-tic, Sodena, Tracasa, Tracasa Instrumental, Start Up Capital Navarra, Posusa eta Caviar Per Se; azken hori likidazioan dago.

- Hamabi fundazio hauek: Baluarte Fundazioa, Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbaziorako Fundazioa, Miguel Servet Fundazioa, Nafarroako Hel-duen Tutoretzarako Nafarroa Fundazioa, Cener-Ciemat Fundazioa, Amado Alonso Fundazioa, Centro de Arte Contemporáneo de Huarte Fundazioa, Nafarroako Osasun Ikerkuntzarako Institutua Fundazioa, Miguel Induráin Fundazioa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitate-Sozietatea Fundazioa, Julián Gayarre Fundazioa eta Bikaintasunerako Nafarroa Fundazioa.

Horri dagokionez, Ministro Kontseiluak, 2020ko otsailaren 11n, aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak egokitu zituen administrazio pu-bliko guztientzat, eta ehuneko 0,2ko defizit helburua ezarri zuen autonomia er-kidego guztientzat.

COVID-19ak eragindako osasun-, gizarte- eta ekonomia-krisiaren ondoren, Europako Batzordeak eta Europako Kontseiluak Egonkortasun eta Hazkunde-rako Itunaren babes-klausula aktibatzea onartu zuten 2020ko martxoan. Aktiba-zio horri esker, Europar Batasuneko estatu kideek atzeratu eta eten egin dezakete krisiaren aurretik finkatutako bateratze fiskalaren bidea. Erabaki horren ondo-rioz, Kongresuaren Osoko Bilkurak 2020-2021 aldiatarako egonkortasunari, zor publikoari eta gastu arauari buruzko hiru zerga arauen aplikazioa etetea erabaki zuen 2020ko urrian.

2020ko Kontu Orokorren oroitidazkiak dakarrenez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa Koordinatzeko Batzordeak, 2020ko urriaren 6an, zerga arau horietarako erreferentzia-balio batzuk ezartzea erabaki zuen, txosten honen VI.3 epigrafean zehaztu ditugunak, COVID-19aren pandemiak 2020an jarduera ekonomikoan eragindako beherakadaren ondoriozko diru-sarreren murrizketaren inpaktuaren aurrean.





### II.3. Aplikatzekoa den arau-esparrua

Honako hauek osatzen dute, funtsean, 2020rako NFKAri aplikatu dakioken arau-esparrua:

- 5/2020 Foru Legea, martxoaren 4koa, 2020ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 13/2000 Foru Lege Orokorra, abenduaren 14koa, tributuei buruzkoa.
- 28/1990 Foru Legea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 24/2019 Foru Agindua, urriaren 8koa, Ekonomia eta Ogasun kontseilariarena, zeinaren bidez onesten baitira 2019ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorra eta Balantze Kontuak itxi eta likidatzeko arauak eta 2020ko ekitaldiaren irekitzea.
- 110/2020 Foru Agindua, irailaren 18koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena, Nafarroako aurrekontu orokorren eta 2020ko ekitaldiko balantze-kontuen itxiera eta likidazioa eta 2021eko ekitaldiaren hasiera erregulatzeko arauak onartzen dituena.
- Indarra duen araudi sektoriala.
- COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko hartutako neurriekin lotutako araudia.





### III. Helburuak eta irismena

Finantza-fiskalizazioa egin dugu, baita NFKAren eta haren EEAAen 2020ko ekitaldiko urteko kontuen legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioa ere, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- Ea 2020ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi nabarmen guztietan, 2020ko abenduaren 31ko ondarearen, finantza-egoeraren, aurrekontuaren likidazioaren eta emaitza ekonomikoaren irudi zehatza adierazten duten, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoaren arau-esparruan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

- Ea NFKAk, haren EEAAek, haren sozietate eta fundazio publikoek 2020ko ekitaldian egindako aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta urteko kontuetan islatutako informazioa bat datozen, alderdi nabarmen guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko arauekin.

- 2019ko ekitaldiko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioak betetzea.

Fiskalizazioaren irismena 2020ko ekitaldiari dagozkion NFKAren eta haren erakunde autonomoen urteko kontuak izan dira. Horien kontabilitate-egoerak laburbilduta jaso dira txosten honen V. epigrafean, eta osorik, erantsitako oroitazkian. Honako dokumentu hauetan dautza, funtsean:

- Aurrekontuen likidazioa.
- Egoeraren balantzea.
- Emaitza ekonomiko eta ondarekoaren kontua.
- Oroitidazki orokor bat, aurreko egoera-orrietan jasotako informazioa zabal-tzen eta iruzkintzen duena.

Legeriaren betetzeari dagokionez, norainokoa dagokie txosten honen VI. atalean aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei.

Bestalde, jasotako eskaera hauei erantzunen zaie txosten honetan:

- ELA sindikatuak 2020ko ekainaren 17an eskatu zion Kontuen Ganberari ehuneko 1,25eko aldearen xedearen fiskalizazioa egiteko, hain zuzen 2019koarekiko ehuneko 4,5eko igoeraren -Nafarroako 2020ko Aurrekontu Orokorreari buruzko Foru Legean irakaskuntza pribaturako diru-laguntzen partidetarako aurreikusia- eta Gobernuaren 2020ko ekainaren 3ko Akordioko hezkuntza-itunen modulu ekonomikoen ehuneko 3,25eko igoeraren arteko aldeari dagokiona.

Kasu honetan, gure ondorioak txosten honen VI.7 epigrafean azalduz aztertu dugu eskaera. Era berean, Kontuen Ganbera honek 2018ko maiatzean itunpeko ikastetxeetako irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruz egindako txostenaren gomendioen jarraipena egin dugu.





- Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzordeak, 2021eko otsailaren 1eko bilkuran, Navarra Suma talde parlamentarioak eskatuta, Nafarroako Kontuen Ganberari honi buruzko fiskalizazio-txostena eskatzea erabaki zuen: *“Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Lanbide Orientazioko Zerbitzuaren kontratuaren lizitazioa”*.

Eskaera horri txosten honen VI.6 epigrafean erantzuten diogu.

- Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzordeak, 2021eko martxoaren 15eko bilkuran, Navarra Suma talde parlamentarioak eskatuta, erabaki zuen honi buruzko fiskalizazio-txostena eskatzea Nafarroako Kontuen Ganberari: *“Nafarroako Osasun Zerbitzuko zainketa soziosanitarioen arloan ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzen deialdiaren betearazpena, Osasuneko zuzendari nagusiaren maiatzaren 15eko 1913E/2017 Ebazpenaren bidez onartua”*.

Eskaera horri txosten honen VI.7 epigrafean erantzunen zaio.

- Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak, 2021eko ekainaren 21eko bilkuran, Nafarroako Suma parlamentu-taldeak eskatuta, Nafarroako Kontuen Ganberari honi buruzko fiskalizazio-txostena eskatzea erabaki zuen: *“CPEN osatzen duten enpresa publikoetan aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzea, eta kontratu horiek hautatzeko prozedurak berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioetara eta ezarritako kontratazio-prozeduretara egokitzea”*.

Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusiak egindako lana aztertu dugu. Izan ere, mugagabe bihurtutako aldi baterako kontratu guztiak berrikusi ditu, eta eskabidean adierazitako printzipio eta prozeduretara egokitzen diren aztertu du. Gure ondorioak lan horretan oinarritzen dira.

Halaber, honako hau hartu da kontuan:

- Nafarroako Parlamentuaren, Nafarroako Arartekoaren eta Nafarroako Kontseiluaren 2020ko urteko kontuak Ganbera honek fiskalizatu ditu.

- Kontuen Ganberaren beraren 2020ko urteko kontuak Andaluziako Kontuen Ganberak fiskalizatuko ditu 2022an.

- Urteko kontuak eta sozietate eta fundazio publikoen legezketasuna kontu-ikuskaritzako enpresa pribatuek ikuskatzen dituzte, Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusiaren tutoretzapean. Txosten hau idazteko unean, Nafarroako Ondare Historikoa Kontserbatzeko Fundazioaren eta IdiSNA Fundazioaren urteko kontuak ez dira ikuskatu.

- Gure berrikuspenaren irismena zehazteko, uste dugu Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusiak alderdi jakin batzuk aztertu dituela jada, bere barneko kontrol-plana kontuan hartuta. Zehazki, honako hauek dira:





a) Nafarroako Gobernuako Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusiak osasun-horniduren, sendagaien, osasun-itunen, protesien eta prestazioen gastuen etengabeko finantza-kontrola egiten du, eta fiskalizaziotik salbuetsitako beste gastu eta kontratu txiki batzuen kontrola aurreikusten du (2. eta 6. kapitulueta-koak), 97,06 milioi euroan.

b) Zuzendaritza honek aldez aurreko esku-hartzetik salbuetsitako gastu hauek aztertu zituen: etxebizitzaren eta eraikuntzaren sustapenaren arloko laguntzak (38,45 milioi) eta bermatutako prestazio gisa araututako pertsona fisikoentzako zuzeneko laguntza ekonomikoak (161,23 milioi). Bestalde, CPAEN-NNPEK (275.000 euro), EHNE (101.503 euro), UAGN (216.914 euro), UCAN (245.930 euro), Orfeón Pamplonés (267.219 euro) eta Munduko Medikuek (634.569 euro) erakundeen diru-laguntzen auditoriak egin ziren. Era berean, Zuzendaritza hau diru-laguntza txikiak berrikusten ari da, 53,82 milioi euroko zenbatekoarekin.

• Kontuen Ganbera honek egindako edo egiteko fasean dauden honako auditoria-txosten hauek, 2020ko ekitaldiari buruzkoak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak COVID-19 kudeatzea (2020ko martxoa-abendua). Txosten horretan, ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten 2. kapituluko 16,55 milioi aztertu ziren guztira, baita transferentzia arrunten 30,77 milioi euroko gastua ere.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kudeaketa (2015-2019).

c) Nafarroako Mendekotasunaren Legean ordainketen kudeaketari eta kontrolari buruzko gomendioen jarraipena.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Audenasari egindako deskontuengatik konpentsazioa (2020ko azaroa).

e) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak enpresa pribatuei 2020an emandako diru-laguntzak. Guztira 33,40 milioiko transferentziak fiskalizatu ziren (17,94 milioi diru-laguntza arrunt eta 15,46 milioi kapitaleko diru-laguntza).

f) Miguel Servet Fundazioari buruzko gomendioen jarraipena.

g) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordainketa telematikoko zerbitzuak.

h) Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak.

i) Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko urriaren 13ko bilkuran, Navarra Suma talde parlamentarioak eskatuta, erabaki zuen Ganberari eskatzea fiskalizazio-txosten bat, “*Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak TRACASA INSTRUMENTAL S.L. enpresari 2020. urtean egindako enkarguei buruzkoa*”.





#### IV. Iritzia

NFKAren eta haren erakunde autonomoen 2020ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditugu. Kontabilitateko egoera-orriak txosten honen V. epigrafean daude laburbilduta.

##### *Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna*

Ekonomia eta Ogasun Departamentua da Nafarroako Kontu Orokorrak egiteko erantzukizuna duena, eta kontu horiek halako moduz egin behar ditu non zehatz irudikatuko baitituzte NFKAren eta haren EEAAen aurrekontu-betetzea, ondare, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Halaber, iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden urteko kontuak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren arduraduna da.

Nafarroako 2020ko Kontu Orokorraren Foru Legearen Proiektua Nafarroako Gobernuak onartu zuen 2021eko ekainaren 30eko bilkuran, eta Nafarroako Parlamentura bidali zen. Parlamentuak Kontuen Ganberari helarazi zion, Mahaiak 2021eko irailaren 7an hartutako erabakiaren bidez.

Kontu Orokorrak egiteko erantzukizunaz gainera, aipatutako departamentuak bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

##### *Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna*

Gure erantzukizuna da iritzia ematea, batetik, NFKAren eta haren EEAAen 2020ko urteko kontuei buruz, eta, bestetik, egindako eragiketen legezotasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta.

Horretarako, aipatutako fiskalizazioa egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek dituzten oinarrizko fiskalizazio-printzipioei jarraituz; zehazkiago, fiskalizazio finantzarioei buruzko ISSAI-ES 200 arauari eta betetzeari buruzko 400 arauari jarraituz. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin dezagula ere, honako helburuarekin: arrazoizko segurtasun bat izatea urteko kontuetan akats materialik ez egoteari buruz, eta ekitaldian egindako jarduerak zein aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta finantzen egoera-orrietan islatutako informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, indarreko arauen arabera izatea.

Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du auditoretza ebidentzia lortzeko urteko kontuetako zenbatekoei eta informazioari buruz eta fiskalizatutako ekitaldian araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak betetzeari buruz. Hautatutako prozedurak auditorearen iritziaren menpean daude, urteko kontuetan





iruzur edo errore baten ondoriozko zuzentasun falta materialaren zein legezkotasunaren ez-betetze esanguratsuen arriskuak baloratzea barne. Arriskuaren balorazio horiek egitean, auditoreak barne-kontrol garrantzitsua kontuan hartzen du erakundeak urteko kontuak formulatzeko eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretzako prozedurak diseinatzeko, eta ez erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko.

Auditoretza batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia funtsatzeko.

#### IV.1. 2020ko urteko kontuei buruzko finantza-auditoretzaren iritzia

##### *Finantza-iritziaren oinarria, salbuespenekin*

a) Ez dira oso-osorik aplikatzen Kontabilitate Publikoko 2010eko Plan Orokorrak zergen, zerga-zordunen eta ibilgetuaren kontabilitate-tratamendu egokirako bildutako kontuak, irizpideak eta printzipioak. Horrez gain, kontuak edo epigrafeak sailkatzean errore txikiagoak daude, eta horrek esan nahi du diru-sarreraren aurrekontuaren, aurrekontu-emaitzaren, diruzaintzako gerakinaren eta balantzearen likidazioaren egoera-orriaren egitura ez datorrela bat kontabilitate-araudian ezarritako ereduarekin. Era berean, ez da aurkeztu Ondare Garbiko Aldaketan egoera-orririk, ezta diru-fluxuen egoera-orririk ere.

b) Hirugarrenen kontabilitate osagarrian eta zerga-kudeaketan (CAT) eta SAPGE21 kontabilitate-sisteman ekitaldian jasotako kobrantzei buruz jasotako informazioa ez da behar bezala eskualdatu. Hortaz, ezin da identifikatu ekitaldian edo aurreko urteetan sortutako diru-sarrerari dagozkien. Horregatik, 1. eta 2. kapituluetakako diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriko diru-bilketa garbiak beste ekitaldi batzuetan sortutako eskubideen kobrantzak izan ditzake.

Horri dagokionez, egiaztatu dugunez, diru-sarreraren 1. eta 2. kapituluari dagozkien bilketa garbian bildutako 3.586,40 milioietatik 3.257,13 milioi 2020an sortutako diru-sarrerari dagozkie. Bilketa garbiaren gainerakoari dagokionez (329,09 milioi), ez dugu 2020an edo aurreko ekitaldietan sortutako diru-sarrerekin bat datorren ebidentziarik.

Horrek, era berean, ondorioak ditu diruzaintzako gerakinetik kobratzeko dauden eskubideen epigrafean eta balantzeko aurrekontu-zordunen epigrafean. Zifra globalak zuzenak izanda ere, ez dago haien osaeraren banakapena arrazoizkoa izatearen ebidentziarik.







c) Ez dira balantzean erregistratu, eta oroitidazkiak ez du informaziorik jaso NFKAren eta haren erakunde autonomoen funtzionario aktibo eta pasiboen montepioak sortutako betebeharrak aktuariak buruz. NFKAk egindako azterlan eta balioespenen arabera, montepio horren prestazioak direla-eta 2021-2087 aldirako kostua 1.726 milioi konstante ingurukoa izanen da.

d) Egoeraren balantzean, ezin izan da egiaztatu, 2020ko abenduaren 31n, ibilgetu materialen kontabilitate-saldoa, 2.474 milioikoa, arrazoizkoa denik. Izan ere, saldo horrek ez du babesten ondasunen inbentario orokorra, aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera behar bezala baloratua.

e) Balantzearen aktiboaren Inbertsioen balio-galerarengatik hornidura ize-neko kontuak 84,73 milioiko saldo negatiboa du. Saldoa kalkulatzeko, sozietate nagusiaren ondare garbia hartu da kontuan, taldearen zifra bateratuarekin lortu beharrean, kontabilitate-araudiak adierazten duenez. Horrek esan nahi du zenbateko horrek zero izan beharko lukeela.

Ganbera honek atentzioa ematen du erakunde honek 1981eko NFKAren urteko kontuak lehen aldiz ikuskatu zituenetik agerian jarri diren a), b), c) eta d) salbuespenen errepikapenari buruz. b) eta d) ataletan adierazitako akatsak konpontzeko ahalegin handia egin bada ere, honako txosten hau idatzi den egunean ezin izan dira konpondu.

#### *Finantza-auditoretzaren iritzia, salbuespenekin*

Gure ustez, alde batetik, a), c) eta e) lerroketan deskribatutako gertakarien ondorioengatik eta, bestetik, "Finantza iritziaren oinarria, salbuespenekin" ataleko ondorioengatik izan ezik, eta b) eta d) paragrafoetan deskribatutako irismen-mugak izan ditzakeen ondorioengatik izan ezik, erantsitako urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan, NFKAren eta haren erakunde autonomoen 2020ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela adierazten dute. Ekitaldiko ekonomia- eta aurrekontu-emaitzak ere adierazten dituzte, aplikatzen den finantza-informazio publikoaren arau-esparruarekin bat etorritik eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideekin bat etorritik.

#### *Azpimarratzeko lerrokada*

- Azpimarratu nahi dugu eboluzio negatiboa izan dela zenbait zenbatekotan (zergen bidezko diru-sarrerak, aurrekontu-saldo ez-finantzarioa, ekitaldiko emaitza edo zorpetzea, besteak beste), eta COVID-19ak eragindako krisi sanitarioaren ondorioek baldintzatu dutela neurri handian eboluzio hori.

- Era berean, NFKAren Kontu Orokorren oroitidazkiaren ondorengo gertaeren atalean aipatutakoa azpimarratu nahi dugu. Horren arabera, 2020an hitzartutako





zorra 648,37 milioikoa izateko, 2021ean zorpetze-ituna murriztu daiteke edo zorpetze-eragiketen aurretiazko ezeztapenak egin daitezke. Nolanahi ere, murrizketa horrek, 2021ean, diruzaintzako gerakina nabarmen murriztea ekarriko du, eta horrek diru-sarreraren iturritzat erabiltzea eragotziko du, gastua handitzea dakarten aurrekontu-aldaketetan.

#### IV.2. Legeria betetzearen fiskalizazio-iritzia

##### *Legezkotasunari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin*

NFKAko departamentuek Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusiari emandako informazioaren arabera, ondasun eta zerbitzuen 2. kapitulari dagokion gastu arruntaren ehuneko 26,19 (193,23 milioi euro), transferentzia arruntan 4. kapituluko 1,71 milioi euro eta inbertsioen 6. kapituluko 1,01 milioi euro indarraldi amaitua duten edo kontratu-oinarririk ez duten kontratuen arabera ordaindutako prestazioei dagozkiela kalkulatu dugu.

##### *Legeria betetzeari buruzko iritzia*

Gure ustez, “Legezkotasunari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin” ataleko lerrokadan deskribatutako egitateen ondorioengatik izan ezik, eta egingandako lanaren norainokoa, jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta NFKAren, haren EEAAen eta haren sozietate eta fundazio publikoen 2020ko ekitaldiko urteko kontuetan islatutako informazioa kontuan hartuta, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko araudiarekin bat datoz alderdi esanguratsu guztietan.





## V. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuen laburpena, 2020ko ekitaldia

Jarraian, NFKAren eta haren EEAren 2020ko urteko kontuak osatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri garrantzitsuenen laburpena aurkezten da.

### V.1. 2020ko aurrekontuaren likidazioa

2020ko gastu-aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Aldak.	Behin betiko kreditua	Aitortutako obligazio garbiak	Betetzea (%)	Ordaindutakoa
Langile-gastuak	1.466.766	41.469	1.508.235	1.469.057	97	1.469.057
Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	728.705	68.215	796.920	737.899	93	696.636
Finantza-gastuak	68.554	157	68.711	65.634	96	65.612
Transferentzia arruntak	1.662.337	68.242	1.730.579	1.679.707	97	1.671.452
Kontingentzia funtsa	3.938	-554	3.384	0	0	0
Inbertsio errealak	150.548	11.668	162.216	142.136	88	124.651
Kapital-transferentziak	175.720	47.366	223.086	169.033	76	145.590
Finantza-aktiboak	27.294	15.241	42.535	33.592	79	33.592
Finantza-pasiboak	289.936	0	289.936	289.936	100	289.936
<b>Guztira</b>	<b>4.573.798</b>	<b>251.804</b>	<b>4.825.602</b>	<b>4.586.995</b>	<b>95</b>	<b>4.496.527</b>

2020ko sarrera-aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Eskubide aitortu garbiak	Betetzea (%)	Diru-bilketa garbia
Zuzeneko zergak	2.012.694	0	2.012.694	1.928.569	96	1.916.177
Zeharkako zergak	2.000.007	0	2.000.007	1.730.128	87	1.670.220
Tasak, prezio publikoak eta bestelakoak	105.787	9.872	115.659	130.018	112	95.019
Transferentzia arruntak	55.073	56.803	111.876	243.831	218	243.495
Ondare bidezko diru-sarrerak	6.573	42	6.615	6.902	104	2.670
Inbertsio errealen besterentzea	198	0	198	482	243	257
Kapital-transferentziak	26.595	997	27.592	20.520	74	19.786
Finantza-aktiboak	50.546	184.090	234.636	21.976	9	19.893
Finantza-pasiboak	316.325	0	316.325	648.373	205	648.373
<b>Guztira</b>	<b>4.573.798</b>	<b>251.804</b>	<b>4.825.602</b>	<b>4.730.799</b>	<b>98</b>	<b>4.615.890</b>





## V.2. 2020ko aurrekontu-emaitza

(milakotan)

Kontzeptuak	Eskubide aitortuak	Aitortutako betebeharrak	Zenbatekoa
1. Eragiketa arruntak	4.039.448	3.952.297	87.151
2. Kapital-eragiketak	21.002	311.169	-290.167
3. Eragiketak finantza-aktiboekin	21.976	33.592	-11.616
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza	4.082.426	4.297.059	-214.633
II. Finantza-pasiboen alde garbia	648.373	289.936	358.437
<b>III. Ekitaldiko aurrekontu-saldoa</b>			<b>143.804</b>
4. Atxiki gabeko diru-zaintzako gerakinarekin finantzaturiko obligazio aitortuak			108.061
5. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze negatiboak			21.885
6. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze positiboak			23.866
<b>V. Ekitaldiko aurrekontuaren saldo doitua (III+4+5-6-7)</b>			<b>249.884</b>

## V.3. Diruzaintza-gerakina 2020ko abenduaren 31n

(eurotan)

Kontzeptuak	Zenbatekoa
<b>+ Kobratzeko dauden eskubideak</b>	<b>145.533.827</b>
Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	852.093.560
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-558.821.672
Aplikatzeko dauden partiden araberrako murrizketa	-102.320.025
Aplikatzekoak diren partidengatiko gutxiagotzea (hirugarrenen kontabilitate laguntzailea)	-49.656.382
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	7.749.722
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-7.653.967
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	4.342.450
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-199.859
<b>- Ordaintzeko dauden obligazioak</b>	<b>230.197.678</b>
Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	204.556.258
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	527.435
Aurrekontuz kanpoko gastuak	25.113.985
<b>+ Funts likidoak</b>	<b>444.157.704</b>
<b>Diruzaintza-gerakina, guztira (1)</b>	<b>359.493.853</b>
Diruzaintza-gerakina, Toki Ogasunen Funtsari atxikitakoa	35.808.122
Finantzaketaren desbideratze metatu positiboak	41.078.214
PFEZren % 0,7ari atxikitako diruzaintza-gerakina	1.229.257
Diruzaintza-gerakina Hondakinen Funtsa	8.550.115
<b>Atxikitako diruzaintza-gerakina (2)</b>	<b>86.665.709</b>
<b>Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (1) - (2)</b>	<b>272.828.144</b>





## V.4. Egoeraren balantzea 2020ko abenduaren 31n

(eurotan)

AKTIBOA	2020ko ekitaldia	2019ko ekitaldia
<b>A) Ibilgetua</b>	<b>3.028.073.326</b>	<b>2.959.559.015</b>
<b>III. Ibilgetu materialak</b>	<b>2.474.233.833</b>	<b>2.405.134.422</b>
1. Lursailak eta eraikinak	1.627.948.027	1.597.048.496
2. Instalazio teknikoak eta makineria	79.833.101	77.530.217
3. Tresneria eta altzariak	450.753.063	434.607.289
4. Bestelako ibilgetua	315.699.642	295.948.420
<b>V. Finantza-inbertsio iraunkorrak</b>	<b>553.839.493</b>	<b>554.424.593</b>
1. Epe luzeko baloreen zorroa	550.187.256	543.187.256
2. Epe luzerako bestelako inbertsio eta kredituak	89.327.445	85.250.277
4. (Hornidurak)	-85.675.208	-74.012.939
<b>C) Aktibo zirkulatzaila</b>	<b>853.526.324</b>	<b>795.596.314</b>
<b>I. Izakinak</b>	<b>28.126.206</b>	<b>15.016.581</b>
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	28.126.206	15.016.581
<b>II. Zordunak</b>	<b>380.945.405</b>	<b>368.090.531</b>
1. Aurrekontu-zordunak	904.851.782	895.779.802
2. Aurrekontukoak ez diren zordunak	38.575.239	14.247.237
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administrazioagatiko zordunak	3.572.448	3.157.632
5. Bestelako zordunak	5.193.175	5.062.079
6. (Hornidurak)	-571.247.239	-550.156.219
<b>III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak</b>	<b>297.009</b>	<b>29.462</b>
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	287.102	0
3. Epe laburrerako eratutako fidantza eta gordailuak	9.907	29.462
<b>IV. Diruzaintza</b>	<b>444.157.704</b>	<b>412.459.740</b>
<b>Aktiboa, guztira (A+C)</b>	<b>3.881.599.650</b>	<b>3.755.155.329</b>

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2020ko ekitaldia	2019ko ekitaldia
<b>A) Funts propioak</b>	<b>146.279.435</b>	<b>272.135.631</b>
<b>I. Ondarea</b>	<b>120.596.839</b>	<b>-19.520.980</b>
1. Ondarea	120.596.839	-19.520.980
<b>III. Aurreko ekitaldiko emaitzak</b>	<b>151.538.791</b>	<b>140.117.820</b>
1. Aurreko ekitaldiko emaitzak	151.538.791	140.117.820
<b>IV. Ekitaldiko emaitzak</b>	<b>-125.856.195</b>	<b>151.538.791</b>
<b>C) Epe luzeko hartzekodunak</b>	<b>3.056.127.859</b>	<b>2.690.586.280</b>
<b>I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak</b>	<b>1.047.336.440</b>	<b>1.117.966.295</b>
1. Obligazioak eta bonoak	1.047.336.440	1.117.966.295
<b>II. Epe luzeko bestelako zorrak</b>	<b>2.008.791.419</b>	<b>1.572.619.985</b>
2. Bestelako zorrak	2.008.385.900	1.572.217.538
4. Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	405.519	402.447
<b>D) Epe laburreko hartzekodunak</b>	<b>679.192.356</b>	<b>792.433.419</b>
<b>I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak</b>	<b>265.755.557</b>	<b>281.779.125</b>
1. Epe laburreko obligazioak eta bonuak	223.146.429	243.384.652
2. Epe laburreko kreditu-erakundeekiko zorrak	42.609.128	38.394.474
<b>III. Hartzekodunak</b>	<b>413.436.799</b>	<b>510.654.294</b>
1. Aurrekontuko hartzekodunak	236.601.796	373.385.510
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administrazioagatiko hartzekodunak	10.122.822	7.179.361
4. Administrazio publikoak	4.618.909	4.112.691
5. Beste hartzekodun batzuk	157.698.726	122.115.338
6. Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	4.394.546	3.861.394
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+C+D)</b>	<b>3.881.599.650</b>	<b>3.755.155.329</b>





## V.5. 2020ko emaitzen kontua

(eurotan)

Zor	2020ko ekitaldia	2019ko ekitaldia
A) Gastuak		
2. Hornidurak	317.867.845	290.424.042
b) Ekitaldiko kontsumoak	317.867.845	290.424.042
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.965.863.140	1.890.070.919
a) Langile gastuak	1.369.553.931	1.309.445.379
a.1) Soldatak eta ordainsariak	1.135.898.942	1.088.950.413
a.2) Gizarte-zamak	233.654.989	220.494.966
b) Gizarte-prestazioak	100.990.495	98.387.269
d) Trafiko horniduretako aldeak	21.091.020	33.991.284
d.1) Horniduren aldea eta kobraezinak diren kredituen galerak	21.091.020	33.991.284
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	403.981.950	373.438.820
e.1) Kanpoko zerbitzuak	400.806.532	370.245.662
e.2) Tributuak	77.023	78.559
e.3) Askotariko gastuak	3.098.395	3.114.599
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	58.583.475	73.977.448
f.1) Zorreatik	58.583.475	73.977.448
g) Finantza-inbertsioetarako horniduren aldaketa	11.662.269	830.718
4. Transferentziak eta dirulaguntzak	1.805.102.321	1.746.533.963
a) Transferentzia arruntak	1.662.094.596	1.569.548.430
c) Kapital-transferentziak	143.007.725	176.985.532
5. Ezohiko gastuak eta galerak	99.850.326	103.278.925
c) Aparteko gastuak	74.518.334	81.883.379
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	25.331.992	21.395.545
Saldo hartzekoduna (aurrezkia)	0	151.538.791
Zorra, guztira	4.188.683.632	4.181.846.639





Hartzeko	2020ko ekitaldia	2019ko ekitaldia
(eurotan)		
B) Diru-sarrerak		
<b>1. Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak</b>	<b>3.682.851.043</b>	<b>3.965.025.831</b>
<b>a) Tributu bidezko diru-sarrerak</b>	<b>3.671.975.015</b>	<b>3.950.217.480</b>
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	1.536.729.829	1.557.836.117
a.2) Sozietateen gaineko zerga	250.234.281	275.299.514
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	61.639.777	46.137.693
a.4) Ondarearen gaineko zerga	40.132.362	39.764.116
a.8) Zuzeneko beste zerga batzuk	39.832.614	41.483.412
a.9) Ondare-eskualdaketen eta EJDen gaineko zerga	60.013.043	69.077.197
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	1.184.316.818	1.343.418.911
a.11) Zerga bereziak	485.798.130	562.797.905
a.12) Zuzeneko zerga iraungiak	27.664	61.636
A.15) Zerbitzuak emateagatiko tasak	13.250.497	14.340.979
<b>b) Kotizazio sozialak</b>	<b>1.437.705</b>	<b>2.213.053</b>
<b>c) Zerbitzu-emateak</b>	<b>9.438.323</b>	<b>12.595.299</b>
c.1) Zerbitzu-emateagatiko prezio publikoak	9.438.323	12.595.299
<b>2. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk</b>	<b>109.782.862</b>	<b>123.156.380</b>
<b>a) Diru-itzultzeak</b>	<b>10.834.282</b>	<b>11.399.340</b>
<b>b) Salmentak eta zerbitzu-prestazioak</b>	<b>43.897.688</b>	<b>44.967.240</b>
<b>c) Kudeaketaren ondoriozko beste diru-sarrera batzuk</b>	<b>42.819.385</b>	<b>48.791.331</b>
c.1) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	42.819.385	48.791.331
<b>f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk</b>	<b>12.231.507</b>	<b>17.998.469</b>
f.1) Beste interes batzuk	12.231.507	17.998.469
<b>3. Transferentziak eta dirulaguntzak</b>	<b>266.181.889</b>	<b>86.381.458</b>
a) Transferentzia arruntak	245.661.494	64.169.548
b) Kapital-transferentziak	20.520.395	22.211.910
<b>5. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak</b>	<b>4.011.643</b>	<b>7.282.970</b>
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	18.791	513.585
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	3.992.852	6.769.385
<b>Saldo zorduna (desaurrezkoa)</b>	<b>125.856.195</b>	<b>0</b>
<b>Hartzekoa, guztira</b>	<b>4.188.683.632</b>	<b>4.181.846.639</b>





## VI. Ondorioak eta gomendioak

Jarraian, Ganbera honen ustez txostenaren hartzaileentzat interesgarriak izan daitezkeen oharra, iruzkinak eta informazio osagarria jaso dira. IV. epigrafean aipatutako salbuespenei buruzko informazio zehatza ere jasotzen du.

Era berean, Ganbera honek beharrezkotzat jotzen dituen gomendioak jasotzen ditu, NFKAn, haren EEAAen, haren sozietateen eta fundazio publikoen ekonomia- eta administrazio-kudeaketa hobetzeko.

### VI.1. 2020ko Nafarroako Aurrekontu Orokorra

2020ko martxoaren 4an onetsi zen Nafarroako 2020ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 5/2020 Foru Legea, 4.573,80 milioiko zenbatekoarekin, nahiz eta gastu ez-finantzarioaren muga 3.434,61 milioitan ezarri zen.

2020ko aurrekontuak, bere gastu-partiden artean, Kontingentzia Funts bat barne hartzen du, AEFNLOren eta Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eskakizunekin bat etorritik. Funts horrek, hasieran, 3,93 milioi euroko zuzkidura zuen aurrekontuetan aurreikusi ezin izan ziren eta atzeratu ezin diren eta esku-menekoak ez diren premiei aurre egiteko.

#### *Aurrekontu-aldaketak*

Gastuetarako hasierako kredituek ehuneko seiko igoera garbia izan dute (251,80 milioi euro) aldaketen bitartez, eta kreditu bateratuak 4.825,60 milioikoak izatera iritsi dira.

Hona hemen 2020an onetsitako aldaketak:

Aurrekontu-aldaketak	(milakotan)		
	Diruzaintzako gerakinarekin finantzatuak	Diru-sarrera handiagoekin finantzatuak	Beste gastu batzuk gutxituz finantzatuak
Kreditu gehikuntzak	63.756	63.279	91.825
Kreditu sorkuntzak	2.260	3.685	0
Kredituak sartzea	41.454	0	162
Kreditu-osagarriak	28.428	0	164
Aparteko kredituak	48.192	750	528
<b>Guztira, 2020</b>	<b>184.090</b>	<b>67.714</b>	<b>92.679</b>

Aurreko taulan, ez dira kreditu-transferentziak sartzen, zeren eta eragiketa horiek ez baitute aurrekontu-eraginik kredituen guztizko zenbatekoan.

Kontuen Ganberak, Parlamentuak eskatuta eta indarra duen legeriari jarraituz, legezkotasun txostenak egin zituen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren eskumenekoak diren ekitaldiko aurrekontu-aldaketei buruz, eta ondorioztatu du organo eskudunak onetsi zituela eta onetsitako aurrekontu-araudian ezarritako legezko mugak errespetatu zirela; besteak beste, finantzabideen egokitasunari dagokiona. Ganbera honek txostena egin dien aldaketen, transferentziak barne, guztizko zenbatekoak 299,83 milioi egin zuen.







Bestalde, aurreikusitako Kontingentzia Funtza ehuneko 14an (0,55 milioi) erabili zen, batez ere langile jakin batzuei gradua atzeraeraginez ordaintzea eta aurreko ekitaldietako beste ordainsari batzuk finantzatzeko, baita epaiak betearazteagatik kalte-ordainen ondoriozko gastuak finantzatzeko ere.

2020ko abenduaren 31n ez dago jasota krediturik ez izatearen atxikipenik.

#### *Aurrekontu-likidazioa*

2020an aitortutako obligazioak 4.587 milioi izan dira, eta betearazpen eta ordainketa portzentajea % 95 eta % 98koa izan da, hurrenez hurren.

Aintzatetsitako eskubide garbiak 4.730,80 milioikoak dira, eta betetze-maila eta kobrantza ehuneko 98koa da.

Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- 2020an gastatutako 100 euro bakoitzeko, honela bideratu eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa 2019	Zenbatekoa 2020	Finantzabidea	Zenbatekoa 2019	Zenbatekoa 2020
Langileak	32	32	Tributu bidezko diru-sarrerak	90	80
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	15	16	Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	2	5
Transferentzien bidezko gastuak	39	41	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	3	1
Inbertsio errealak	3	3	Zorpetzea	5	14
Finantza-zama	10	7			
Finantza-aktiboak	1	1			
	100	100		100	100

Ikusten denez, 2020an gastuaren egiturak, oro har, ez du aldaketa nabarmenik izan, baina transferentzietako gastua ehuneko bi puntu igo da eta finantza-karga hiru puntu jaitsi da.

Finantzaketa-egitura nabarmen aldatu da. Hala, tributu-sarrerek guztizkoan duten pisua nabarmen jaitsi da, 2019an 90 puntukoa izatetik 2020an 80 puntukoa izatera igaro baita, eta hitzartutako zorpetzea, berriz, ehuneko bostetik 14ra igo da ekitaldian.





2020ko aurrekontu-gastua, xedearen edo funtzioaren arabera, hauxe izan zen:

Gastu-politika	2019ko ABG	2020ko AGB	(milakotan)	
			Guztizko AB- Gen ehune- koa, 2020	Aldea (%) 2020/2019
<b>Oinarrizko zerbitzu publikoak</b>	<b>136.238</b>	<b>145.233</b>	<b>3</b>	<b>7</b>
Justizia	30.592	31.888	1	4
Herritarren segurtasuna eta espetxe-erakundeak	93.379	97.180	2	4
Atzerri-politika	12.266	16.165	0.4	32
<b>GASTU SOZIALA (A) + (B)</b>	<b>2.450.719</b>	<b>2.676.661</b>	<b>58</b>	<b>9</b>
<b>A) Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak</b>	<b>579.573</b>	<b>631.401</b>	<b>14</b>	<b>9</b>
Pentsioak	113.512	116.393	3	3
Bestelako prestazio ekonomikoak	2.591	2.647	0	2
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	347.712	388.554	8	12
Enpleguaren sustapena	50.927	53.306	1	5
Etxebizitza eskuratzea eta eraikuntza sustatzea	64.831	70.501	2	9
<b>(B) Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena</b>	<b>1.871.146</b>	<b>2.045.260</b>	<b>45</b>	<b>9</b>
Osasuna	1.103.560	1.217.628	27	10
Hezkuntza	707.216	770.061	17	9
Kultura	60.369	57.571	1	-5
<b>Jarduketa ekonomikoak</b>	<b>394.681</b>	<b>426.309</b>	<b>9</b>	<b>8</b>
Nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura	94.996	89.959	2	-5
Industria eta energia	12.256	24.638	1	101
Merkataritza, Turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	9.053	21.062	0.5	133
Garraiorako dirulaguntzak	31.570	27.522	1	-13
Azpiegiturak	187.860	170.902	4	-9
Ikerketa, garapena eta berrikuntza	47.620	54.715	1	15
Izaera ekonomikoko beste jarduketa batzuk	11.326	37.511	1	231
<b>Jarduketa orokorrak:</b>	<b>1.414.539</b>	<b>1.338.792</b>	<b>30</b>	<b>-5</b>
Goi-zuzendaritza	19.963	19.314	0.4	-3
Zerbitzu orokorrak	144.427	98.618	2	-32
Finantza eta tributu administrazioa	20.942	27.544	1	32
Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa.	548.108	549.544	12	0.3
Estatuarekiko bestelako hitzarmenak	7.350	6.350	0.1	-14
Toki-administrazioentzako transferentziak	264.668	285.431	6	8
Zor publikoa	409.081	351.991	8	-14
<b>Guztira</b>	<b>4.396.177</b>	<b>4.586.995</b>	<b>100</b>	<b>4</b>

2020an, osasunean eta hezkuntzan egindako gastua nabarmentzen da, gastu osoaren % 27 eta % 17, hurrenez hurren. Gainera, Estatuarekiko Hitzarmena azpimarratzen dugu, ehuneko 12 baita, baita zor publikoa eta gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena ere, ehuneko zortzi bi kasuetan.


2019. urtearen aldean, hazkunde handiak izan dira zenbait gastu-politiketan, hala nola ehuneko hamarreko igoera osasunean (114,07 milioi); ehuneko bederatzikoa hezkuntzan (62,84 milioi); gizarte-zerbitzuetan eta -sustapenean ehuneko 12 (40,84 milioi); eta toki-administrazioei eginiko transferentzietan ehuneko zortzi (20,76 milioi). Bestalde, gastu batzuk murriztu egiten dira, hala nola





zor publikoarekin lotutakoak, ehuneko 14 (57,09 milioi) murrizten baitira, zerbitzu orokorrekin lotutakoak ehuneko 32 (45,81 milioi) edo azpiegiturekin lotutakoak ehuneko bederatzi (16,96 milioi).

Aurreko gastu-kategoriak gastu-politiken, oinarrizko zerbitzu publikoen, gizarte-gastuen (gizarte-babeseke eta -sustapeneko jarduketak eta lehentasunezko ondasunen ekoizpena), jarduera ekonomikoen eta jarduera orokorren arabera taldekatzen baditugu, hau da gastuaren banaketa 2020an:



2019. eta 2020. urteen artean aipatutako aldaketak gertatzen badira ere, aipatutako politiken artean gastuaren banaketa-ehunekoak antzekoak dira bi ekitaldietan.





Hurrengo taulak 2019. eta 2020. urteetarako gastuen eta diru-sarreraren aurre-kontu-likidazioarekin lotutako adierazle batzuen konparazioa dakar:

Adierazlea	2019	2020	(milakotan) 2020/2019 aldea (%)
Gastua, guztira	4.396.177	4.586.995	4
Gastu arruntak (1.-4. kap.)	3.733.389	3.952.297	6
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kap.)	3.658.327	3.886.663	6
Kapital-gastuak (6. eta 7. kap.)	295.519	311.169	5
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kap.)	367.268	323.528	-12
Diru-sarrerak, guztira	4.415.964	4.730.799	7
Sarrera arruntak (1.-5. kap.)	4.155.298	4.039.448	-3
Tributu bidezko sarrerak (zergak, tasak eta kontrib. bereziak)	3.952.957	3.674.746	-7
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehunekoa)	106	93	-12
Zerga-bilketa likidoa*	3.941.132	3.627.079	-8
Tributuen diru-bilketa likidoak BPGaren gainean zenbat egiten duen	18.90	19.14	1
Kapitaleko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	24.473	21.002	-14
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	236.193	670.349	184

\* Diru-bilketa likidotzat ulertzen dira urteko ekitaldian eta itxitako ekitaldietan eskudirutan egindako kobrantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken itzulketak.

Arestiko datu horiek kontuan hartuz, ondoko alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

- 2020an, gastuak, guztira, 4.587 milioi eurokoak dira, eta ehuneko lau handitu dira (190,82 milioi) 2019. urtearen aldean.

Horien izaera kontuan hartuta, arruntak guztizkoaren ehuneko 86 dira eta ehuneko sei igo dira; finantza-eragiketei dagozkienak ehuneko zazpi dira eta ehuneko 12 jaitsi dira 2019. urtearekin alderatuta; kapital-gastuak, berriz, gainerako ehuneko zazpi dira eta aurreko urtekoak baino ehuneko bost handiagoak dira.

- 2020ko diru-sarrerak, 4.730,80 milioi eurokoak, ehuneko zazpi igo dira 2019koen aldean (314,84 milioi).

Sarrera arruntak (4.039,45 milioi) ehuneko hiru jaitsi ziren, eta horien barruan, tributudunak (3.674,75 milioi) ehuneko zazpi; kapitalarenak (21 milioi) ehuneko 14 murriztu ziren; finantza-eragiketetatik eratorritakoak (670,35 milioi), berriz, ehuneko 184 igo ziren.

- Zerga-bilketa likidoa 3.627,08 milioikoa izan zen 2020an, 2019koa baino ehuneko zortzi txikiagoa (314,05 milioi).

Bilketa hori Nafarroako BPGaren ehuneko 19 da (hasieran 18.947 milioi euro inguru), 2019koaren antzeko ehunekoa.





## VI.2. NFKAren eta haren EEAAen egoera ekonomiko-finantzarioa 2020ko abenduaren 31n

Hurrengo taulan, NFKAren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioarekin lotutako adierazle batzuen bilakaera erakusten dugu, 2019. eta 2020. urteetan:

Adierazlea	2019	2020	(milakotan)
			Aldea (%) 2020/2019
Finantzazkoa ez den aurrekontu-saldoa	150.863	-203.016	-235
Aurrekontuaren saldo doitua	148.496	249.884	68
Aurrezki gordina	496.971	152.785	-69
Finantza-karga (3. eta 9. kap.)	412.051	355.070	-14
Aurrezki garbia	84.920	-202.286	-339
NFKAren finantza-zorra*	2.961.088	3.310.603	12
Diru-sarrera arrunten gaineko zorraren ehunekoa	71	82	15
Gastu orokorretako diruzaintzako gerakina	138.781	272.828	97
Eratutako abalak (saldo bizia)	99.675	70.870	-29
Etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuak	3.836.880	4.126.876	8

\* Amortizatutako kostua.

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2020ko aurrekontu-saldo ez-finantzarioa negatiboa izan zen, 203,02 milioi guztira. Zenbateko hori nabarmen jaitsi zen 2019. urtearekin alderatuta, ehuneko 235 (353,88 milioi); doitutako aurrekontu-emaizta 249,89 milioikoa izan zen, eta ehuneko 68 hazi zen (101,39 milioi), funtsean zorpetzeagatiko diru-sarreraren igoeragatik.

- Aurrezki gordina ehuneko 69 jaitsi da, eta 152,78 milioirainokoa da. 2019. urtearekin alderatuta, finantza-karga ehuneko 14 murriztu zen (355,07 milioi), baina aurrezki garbi negatiboa sortu zen (202,79 milioi). Kopuru horrek nabarmen egin du okerrera 2019. urtearekin alderatuta; izan ere, urte hartan balio positiboa izan zuen, 84,92 milioi euro guztira.

- 2020ko abenduaren 31n, kostu amortizatuko finantza-zorra 3.310,60 milioikoa da, aurreko urtekoa baino ehuneko 12 handiagoa, hau da, 349,52 milioiko igoera. Haren ehuneko zortzik epe laburreko epemuga du. Sarrera arruntei dagokienez, ehuneko 82 da, 2019an baino ehuneko 11 puntu gehiago.

- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 272,83 milioikoa da, 2019koa baino ehuneko 97 handiagoa. Igoera hori baloratzeko, kontuan hartu behar da zorpetze-eragiketak hitzartu zirela 2020ko urriaren amaieran, 381 milioikoak guztira.





• Zor garbiaren aurrekontu-bilakaera milioitan (hitzartutako zorra ken amortizatutako zorra) 2011-2020 aldirako hauxe da:

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Hitzartutako zorra	483.22	418.86	463.66	492.58	446.94	579.70	498.01	208.06	214.46	648.37
Amortizatutako zorra	91.23	107.26	193.21	296.53	307.23	416.08	293.93	373.15	336.99	289.94
Zor garbia	391.99	311.60	270.45	196.05	139.71	163.62	204.08	-165.09	-122.53	358.43

Zor garbiaren zenbatekoa murriztu egin zen 2011z geroztik, eta 2016an eta 2017an gora egin zuen; balio negatiboak izan zituen 2018an eta 2019an. Hala ere, 2020an lortu zuen baliorik handiena, 358,43 milioikoa, 2011ko balioak soilik gainditzen duena, 391,99 milioikoa izan baitzen.

Ganbera honen aurreko txostenetan adierazi dugunez, hitzartutako eta amortizatutako zorraren zenbateko horiek, gainera, nabarmen baldintzatzen ditu txosten honen VI.13 epigrafean jasotako zorraren amortizazioaren egutegiak.

• Etorkizuneko ekitaldietarako hitzemandako aurrekontu-gastuak 4.126,88 milioi eurokoak dira, eta horietatik ehuneko 87 zorraren finantza-kargari dagozkio. 2019ko datuen aldean, gastu horiek ehuneko zortzi igo dira.

Hona kapituluz kapituluko eta urtez urteko xehetasunak:

Kapituluak	2021	2022	2023	Gainerako urteak	Guztira	(milakotan)
						Guzt/g (%)
Langile-gastuak 1	90	0	0	0	90	0
2 Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak	170.234	27.298	8.140	7.313	212.985	5
3. Finantza-gastuak	52.869	44.552	38.368	204.910	340.699	8
4. Transferentzia arruntak	69.844	6.520	662	167	77.193	2
6. Inbertsio errealak	66.272	28.121	22.878	132	117.403	3
7. Kapital-transferentziak	55.621	27.805	4.456	555	88.437	2
8. Finantza-aktiboak	5.850	4.850	2.850	6.550	20.100	1
9 Finantza-pasiboak	236.617	250.179	247.298	2.535.875	3.269.969	79
<b>Etorkizuneko ekitaldietako gastuak, guztira</b>	<b>657.397</b>	<b>389.325</b>	<b>324.652</b>	<b>2.755.502</b>	<b>4.126.876</b>	<b>100</b>
<i>Ehuneko/urtea</i>	<i>16</i>	<i>9</i>	<i>8</i>	<i>67</i>	<i>100</i>	

Aurreko gastuek ez dituzte jasotzen ez funtzionarioen montepioen betebeharrak, ez itzaleko bidesarietatik datozen gastuak, ez eta interes aldakorra duten maileguengatik zenbatetsitako interesak ere.

Horri dagokionez, itzaleko bidesarien ondorioz aurreikus daitezkeen ordainketa-fluxuei buruzko informazioa jasotzen du oroitidazkiak, eta ez dira etorkizuneko gastuen konpromisoetan sartzen, horien zenbatekoa zalantzarik dela irizita. Aurreikuspen horiek oroitidazkiaren kontingentzien atalean jaso dira; honako hauek dira:

(milakotan)





Azpiegitura	2021	2022	2023	Gainerako urteak	Guztira
Nafarroako Ubidea, 1. fasea	17.702	18.190	18.682	277.322	331.896
Nafarroako Ubidearen zabalkuntza, 1. fasea	12.910	13.227	13.577	368.411	408.125
Donejakue Bideko autobia	57.633	57.742	61.656	267.081	444.112
Pirinioetako autobia	22.360	23.346	24.337	508.837	578.880
<b>Guztira</b>	<b>110.605</b>	<b>112.505</b>	<b>118.252</b>	<b>1.421.651</b>	<b>1.763.013</b>

Iturria: NFKAko urteko kontuen oroitidazkia

Azken batean, NFKAren eta haren EEAAen ekonomia- eta finantza-egoerak, aurreko urteetan hobetze-zantzu argiak zituenak, okerrera egin du hura definitzen duten adierazle gehienetan (finantzazkoa ez den aurrekontu-saldoa, aurrezki gordina eta garbia, ekitaldiaren emaitza eta funts propioak), eta zorpetzea nabarmen handitu da, neurri handi batean COVID-19aren osasun-krisiaren ondorioz.

Testuinguru honetan, kontuan hartu beharra dago, halaber, zenbateko handi samarra egiten duen zor bat badagoela; datozen urteetan amortizatu behar da, eta hura bai ezarritako egutegiak, bai interes-tasen aldeak nabarmen baldintzatzen dute.

*Kontingentzien atalean interes aldakorreko maileguei lotutako zenbatespena sartzeari gomendatzen dugu, urte anitzeko gastu-konpromisoetan duten garrantziagatik.*

### VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioak

Arestian esan bezala, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz, eten egin zen 2020-2021 urteetarako egonkortasunari, zorrari eta gastu-arauari buruzko zerga-arauak betetzea.

2020ko Kontu Orokorren oroitidazkian jakinarazten denez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordeak honako balio hauek ezartzea erabaki zuen 2020ko urriaren 6an:

- % 2,6ko defizita 2020rako eta % 2,2koa 2021erako. 2020ko Kontu Orokorren oroitidazkiaren arabera kalkulaturako defizita ehuneko 0,87 da, eta, beraz, adostutakoa betetzen ari da.

- BPGaren ehuneko 19,6ko zor publikoa 2020rako, eta ehuneko 19,9koa 2021erako. Zor publikoa, 2020ko Kontu Orokorren oroitidazkiaren arabera, ehuneko 19,05koa da, eta, beraz, adostutakoa betetzen ari da.

- Gastu-arauaren kasuan, baimendutako % 2,9ko erreferentzia-tasa ondorerik gabe geratu zen Kongresuaren Osoko Bilkurak onartutako etetearekin. Nolanahire, 2020ko Kontu Orokorren oroitidazkiak dakarrenez, gastua % 1,96 handitu zen, eta, beraz, hala badagokio, aurreikusitako helburua beteko zen.





Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak, kontabilitate nazionalen terminoetan (SEC'2010) mugatuak, 2020an finantza-egonkortasunaren printzipioaren eskakizun hauek bete behar zituen:

- Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazleak ez du gainditu behar berankortasunari buruzko araudian finkatutako ordaintzetarako gehieneko epea. Araudi hori Merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezarri zuen. Oro har, epe hori 30 egunekoa izanen da.

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak hilero argitaratzen du adierazlearen balioa Administrazio Publikoaren sektorearen ordaintzeko batez besteko epeari dagokionez.

Hurrengo taulak urteko batez besteko 2020ko ordaintzeta-epea dakar:

	Ordaintzeko batez besteko aldia (egunetan)
Urtarrila	24,14
Otsaila	26,58
Martxoa	26,56
Apirila	27,62
Maiatza	28,09
Ekaina	27,85
Uztaila	29,27
Abuztua	34,54
Iraila	34,58
Urria	29,61
Azaroa	28,53
Abendua	28,11

Iturria: Nafarroako Gobernuak.

Horrenbestez, Foru Komunitatearen Administrazio Publikoaren Sektoreak 2020an merkataritza-zorraren iraunkortasun-printzipioa bete du, araudian ezarritako epea hilabetean gainditu gabe, abuztuan eta irailean izan ezik. Egiaztatu dugunez, ez da atzerapenik gertatu hornitzaileentzako ordaintzetan, berandutza-interesik sortu duenik.

- Zuhurtzia finantzarioa, edo finantza-eragiketek arriskua eta kostua ahal den guztian gutxitzeko bete beharreko baldintzen multzoa; honako honetan gautzen da:

a) Finantza-pasiboak edo zorpetzea. Zorpetze-eragiketen gehieneko guztizko kostuak, komisioak eta bestelako gastuak barne, ezin izanen du gainditu Estatuaren finantzaketaren kostua eragiketaren epe ertainean, diferentzial jakin batzuk gehituta, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2015eko uztailaren 31ko eta 2017ko uztailaren 4ko ebazpenei jarraituz.







b) Abalak, berrabak edo bestelako berme publikoak. Koordinazio Autonomikoaren eta Tokikoaren Idazkaritza Nagusiaren 2015eko irailaren 9ko Ebazpenari jarraituz, bi muga ezartzen dira SECen arabera bateratze-perimetroa osatzen ez duten entitateei abalak emateko: alde batetik, muga orokor bat, zeinaren arabera abenduaren 31n abalen eta emandako gainerako bermeen zenbatekoak gehi hurrengo ekitaldirako aurreikusitako baimenek ezin izanen baitute gainditu Nafarroaren BPGaren ehuneko 1,5; bestetik, banakako muga bat, zeinaren arabera emandako abal edo berme batek ezin izanen baitu gainditu 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,1eko muga.

Ondorio horietarako, Foru Komunitateak, 2020ko abenduaren 31n, abalei eta beste berme batzuei dagokienez, 114,53 milioiko bolumena du. Abal eta berme horiek Administrazio Publikoaren Sektorea osatzen dutenez beste pertsona fisiko edo/eta juridiko batzuei eman zaizkie —sektore hori SEC'2010 delakoaren arabera definituta—; halaber, 2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak 53 milioiko abalak emateko aurreikuspenak kalkulatu ditu.

Horrenbestez, 2020an emandako eta 2021erako aurreikusitako abalen zenbatekoa 167,53 milioikoa da; zenbateko horrek Nafarroaren BPGaren ehuneko 1 egiten du; portzentajea legeriak aipatzen duen ehuneko 1,5eko mugatik behera dago; hortaz, arau hori bete egin da.

Bestalde, ez dago jasota inongo hirugarrenek banakako zenbatekoetan abalik edo beste bermerik jaso duenik 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,1eko mugatik gora.

c) Finantza-aktiboak. Aipatutako irailaren 9ko Ebazpenaren arabera, eta zor publikoaren helburua betetzen ez duten autonomia erkidegoei zuzenduta, azken horiek ezin izanen dute finantza-aktiboen alde garbi positiborik izan ez-betetzearen hurrengo aurrekontu-ekitaldiaren itxieran. Nafarroak 2019an helburu hori bete zuenez, betebeharrak ezin zaio aplikatu 2020ko ekitaldiari.

Laburbilduz, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren sektoreak, 2020ko ekitaldian, Hitzarmenaren Koordinazio Batzordean ezarritako erreferentziazko parametroak bete ditu, baita finantza-iraunkortasunaren printzipioari buruz indarrean dauden eskakizunak ere.

#### VI.4. Kontuen Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea.

Ganbera honek 2019ko kontu orokorrei buruz egindako txostenetik, indarrean jarraitzen dute ganbera honek aurreko ekitaldietako txostenetan emandako funtsezko gomendio hauek:

- *Foru Komunitatearen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra urgentziaz onestea eta, halakorik egin ezean, bere zabaltasun osoan aplikatzea Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra, 2011ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoena.*





- Lan egiten ari da NFOren kontabilitate-sistemak egokitzeko, horren bidez diru-sarreraren aurrekontuaren garapenari buruzko informazioa lortzeko Kontabilitate Publikoko Plan Orokorreko kontabilitate-prozeduren arabera, estatistikako metodoekin prestatutako txostenen bidez lortu beharrean.
- Balantzean islatzea montepioaren araubidekoak diren foru funtzionarioen eskubide pasiboetatik heldu diren betebeharrak aktuarialak.
- Foru Komunitatearen ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratu bat egitea, ibilgetuaren kontabilitate-saldoak bermatzeko, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrearen betekizunei jarraituz. Inbentario hori ekitaldiari buruzko oroitidazkiari gehitu edo erantsi behar zaio.
- Gomendatzen dugu ibilgetuaren altak eta bajak kontabilizatzeko irizpide batzuk ezartzea, kontabilitatearen arloko araudi indardunaren arabera, eta haiek irizpide horien arabera erregistratzea.
- Kontabilitate sistema garatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezan.

## VI.5. Langile-gastuak

2020an, langile-gastuak 1.469,06 milioi eurokoak izan dira; gastu guztien ehuneko 32, hain zuzen. Ehuneko 43 Osasun Departamentuari dagokio; ehuneko 32, Hezkuntza Departamentuari; eta ehuneko 14, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari.

Gastu horiek honela daude banatuta, kontzeptu ekonomikoen arabera:

Langile-gastuak	2019	2020	(milakotan)
			Aldea (%) 2020/2019
Goi-karguak	3.775	4.999	32
Behin-behineko langileak	2.811	3.012	7
Lanpostuko ordainsariak	829.463	898.123	8
Langileen ordainsariak	125.978	146.258	16
Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	318.743	333.636	5
Ordainsari aldakorak	60.292	77.746	29
Beste hainbat ordainsari	65.142	5.284	-92
<b>Guztira</b>	<b>1.406.204</b>	<b>1.469.057</b>	<b>4</b>

2019. urtearen aldean, langileen gastuak ehuneko lau (63 milioi) igo ziren. Hazkunde horren arrazoi nagusiak honako hauek dira: aldi baterako kontratazioen igoera O-NOZen eta Hezkuntza Departamentuan, COVID19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz, 2019an 356 milioi izatetik 2020an 417 milioi izatera igaro baitira (61 milioi), Gizarte Segurantzaren dagokion gastuarekin; onartutako ehuneko biko soldata-igoera, 26 milioiko eragina duena; eta O-NOZen ordainsari aldakorrei lotutako gastua, 2019an 60,29 milioi izatetik 2020an 77,75 milioi izatera igaro dena (17,50 milioi).



*Plantilla organikoa eta enplegu publikoaren eskaintza*

NFKAren eta haren EEAAen 2020ko abenduaren 31ko plantilla organikoa eta langile finkoen eta behin-behineko langileen zerrenda Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren maiatzaren 10eko 94/2021 Foru Aginduaren bidez argitaratu ziren, 2021eko ekainaren 8ko NAOn.

Ganbera honek, aurreko txostenetan behin eta berriz esan duen moduan, nabarmentzekoa da plantilla organikoak atzerapenarekin argitaratzen direla.

2020ko abenduaren 31ko plantilla organikoko lanpostuak 23.875 ziren: 2019an baino 193 lanpostu gehiago dira. Honako hau da lanpostu beteak eta hutsak azalpena:

Lanpostuak	Adm. Erroa		Hezkuntza		O-NOZ		Guztira	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Betetako lanpostuak	4.689	4.622	5.752	5.513	5.797	5.637	16.238	15.772
Lanpostu hutsak	1.930	2.136	2.313	2.619	3.201	3.348	7.444	8.103
Lanpostuak, guztira	6.619	6.758	8.065	8.132	8.998	8.985	23.682	23.875

Lanpostuen ehuneko 38 O-NOZ dagozkie; ehuneko 34 Hezkuntzari, eta gainerako ehuneko 28a Administrazio Erroari. Plaza guztietatik, ehuneko 66 beteta daude eta ehuneko 34 hutsik daude.

2019an eta 2020an betetako plazen tipologiaren araberrako banaketa honako hau da:

Betetako lanpostu mota	2019	2020	
Lanpostu ez-oinarrizkoak	Behin-behineko langileak	135	140
	Burutzak	1.537	1.553
Oinarrizko lanpostuak	14.566	14.079	
Betetako lanpostuak, guztira	16.238	15.772	

2020an 15.772 plaza bete dira, 2019an baino ehuneko hiru gutxiago (466 plaza). 2019an, berriz, oinarrizko plazek izan dute aldaketarik handiena, ehuneko hiru jaitsi baitira (487 plaza).

Kontu Orokorren oroitidazkian ageri den moduan, 2.318 lanpostu ez dituzte beren titularrek betetzen, hainbat arrazoi tarteko: eszedentziak, burutzengatiko erreserbak, zerbitzu-eginkizunak, prestakuntzaren zatikako zerbitzu bereziak, sarkontzea edo ikerketa, eta abar.





Hutsik dauden lanpostuen zerrenda, egoera eta bilakaera, lanpostuen guztizkoari erreferentzia eginda, taula honetan ageri dira:

Kontzeptua	2019	2020
Lanpostuak, guztira	23.682	23.875
Lanpostu hutsak	7.444	8.103
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	31	34
Betetako lanpostu hutsak	4.731	5.017
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean (%)	64	62

2020an, lanpostu guztien ehuneko 34 hutsik zeuden, eta horien barruan, ehuneko 62 aldi baterako beteta zeuden. 2019an, portzentaje horiek ehuneko 31 eta ehuneko 64 ziren, hurrenez hurren.

Egiaztatu dugu ezen plantilla organikoan jasotako datuak eta horri buruz Kontu Orokorretako oroitidazkian emandako informazioa bat datozela.

Gobernuak, 36 foru dekreturen bidez, plantillaren aldaketak onetsi zituen, 109 lanpostu amortizatzeke (Administrazio Erroko 80, O-NOZeko 28 eta Hezkuntza Departamentuko hiru) eta 306 lanpostu sortzeko (172 Administrazio Errorako, 67 O-NOZerako eta hiru Hezkuntzarako).

Egiaztatu dugu aldaketa horiek guztiak plantillan jaso direla.

Lanpostu horiez gain, badira foru dekretu bidez sortzen ez diren beste batzuk ere, hala nola burutzekin zerikusia dutenak, antolaketa-egituraren aldaketen arabera.

2020an, hiru foru-dekreturen bidez, enplegu publikoaren eskaintza partziala (EPE) onartu zen, 715 lanpostukoa, kasu guztietan birjarpen-tasa aplikatzearen ondorioz, honela banakatuta:

LEParen arrazoia eta haren esparrua	Zenbat lanpostu
Unibertsitatekoak ez diren irakasleak, NFKA	332
O-NOZeko, NOPLOIko eta Osasun Departamentuko osasun langileak	199
NFKAko Administrazio Erroko langileak	184
2020ko EPE plazak guztira, birjarpen-tasaren arabera	715

Ikusten denez, 715 plazetatik 332 (ehuneko 46) hezkuntza-eremuari dagozkio, 199 (ehuneko 28) osasun-eremuari eta gainerako 184 (ehuneko 26) administrazio erroari.

Eskaintza horiek onetsi zituzten foru dekretuetan ez zen zehazten ez aurreikusitako egutegia, ez deialdiak egiteko datak ere. NFKAren web-orrian, berriz, administrazio erroaren eta osasunaren eremuari dagozkion plazetarako kronogramaren aurreikuspena erantsi da.



***Berrezarpen- eta egonkortze-tasen azterketa***

2020ko EPEan berrezarpen-tasa aplikatzearen ondorioz sartu diren plazak berrikusi ditugu, eta emaitza zuzena da.

Egonkortze-tasaren aplikazioari dagokionez, txosten hau idatzi den egunean ez da plazarik deitu arrazoi horrengatik. NFKAk ez digu eman zenbat plaza dei daitezkeen arrazoi horrengatik, eta ez daukagu horiek zenbatzeko informazio nahikorik.

Txosten hau idazteko unean, 411 lanpostu geratzen dira 2020ko EPEan deitzeke. Aurreko urteetako EPEei dagokionez, 2018ko eta 2019ko EPEetako 318 plazaren deialdia egitea falta da.

***Nafarroako administrazio publikoetako langile finkoei eta aldi baterako langileei buruzko azterketa***

2016-2020 aldiko langile finkoen alden eta bajen kopurua aztertu dugu, lanpostuaren erreserbak kontuan izan gabe (zeren eta ez baitira administrazio behin betiko batak), eta honako hauek dira emaitzak:

	2016	2017	2018	2019	2020	Guztira
Altak:	27	293	151	374	607	1.452
Hezkuntza	5	229	7	302	496	1.039
Osasuna	4	50	36	32	40	162
Administrazio Erroa	18	14	108	40	71	251
Bajak:	570	766	679	752	623	3.390
Hezkuntza	211	375	320	383	247	1.536
Osasuna	241	242	242	215	239	1.179
Administrazio Erroa	118	149	117	154	137	675
<b>Alde garbia (altak-bajak)</b>	<b>-543</b>	<b>-473</b>	<b>-528</b>	<b>-378</b>	<b>-16</b>	<b>-1.938</b>

2016-2020 aldian 1.938 pertsonako alde garbi negatiboa ikusten da, 2016-2019 aldian urteko batez bestekoa 481 pertsonakoa izanik. Hala ere, 2020an alde garbi hori nabarmen murriztu da eta balioa, negatiboa izaten jarraitzen badu ere, 16 pertsonakoa baino ez da, funtsean hezkuntzaren eremuan 496 alta eman direlako.

Halaber, lortu dugu 2016-2020 urteetan abenduaren 31n lanean ari ziren langileen datua, NFKA osoaren data horretako langileen behin-behinekotasunaren adierazlea lortzeko; honako hauek dira emaitzak:

	2016	2017	2018	2019	2020
Egiazko langileak	26.851	28.020	28.834	29.943	31.730
Langile finkoak	16.061	15.368	15.146	15.063	14.674
Aldi baterako langileak	10.790	12.652	13.688	14.880	17.056
Aldi baterako langileak/benetako langileak (%)	40	45	47	50	54





Ikusten denez, aipatutako datako behin-behinekotasun adierazlea nabarmen handitu da aztertutako aldian, eta 2016an ehuneko 40 izatetik 2020an ehuneko 54 izatera pasa dira. Adierazle horren goranzko joera argia ikusten da, nahiz eta 2020an balio hori COVID-19aren ondoriozko aldi baterako kontratazioen eraginpean egon daitekeen.

2018-2020 aldiko abenduaren 31n lanean ari ziren langileen sailkapena, NFKAren eremuaren arabera, honako hau da:

	Langile finkoak			Aldi baterako langileak			Langileak, guztira			Aldi baterako langileak (%)		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Hezkuntza	5.358	5.537	5.289	4.805	5.416	6.334	10.163	10.953	11.623	47	49	54
O-NOZ	5.306	5.077	4.930	7.090	7.569	8.629	12.396	12.646	13.559	57	60	64
Administrazio Erroa	4.482	4.449	4.455	1.793	1.895	2.093	6.275	6.344	6.548	29	30	32
<b>Guztira</b>	<b>15.146</b>	<b>15.063</b>	<b>14.674</b>	<b>13.688</b>	<b>14.880</b>	<b>17.056</b>	<b>28.834</b>	<b>29.493</b>	<b>31.730</b>	<b>47</b>	<b>50</b>	<b>54</b>

Behin-behinekotasun indizea goranzkoa da NFKAren eremu guztietan, nahiz eta Administrazio erroan txikiagoa izan (% 32 2020an), O-NOZen balio nabarmen handiarekin alderatuta (% 64).

Bestetik, 2016-2020 aldiko langile finkoen adina aztertu dugu, eta honako hauek dira urte bakoitzeko abenduaren 31n lortutako datuak:

	2016		2017		2018		2019		2020	
	Pertsonak	Guzt/g (%)	Pertsonak	Guzt/g (%)	Pertsonak	Guzt/g (%)	Pertsonak	Guzt/g (%)	Pertsonak	Guzt/g (%)
30 urtetik beherakoak	204	1	132	1	154	1	280	2	256	2
31 eta 40 urte bitarte	2.625	16	2.222	14	2.013	13	1.955	13	1.793	12
41 eta 50 urte bitarte	5.561	35	5.292	34	5.226	35	5.097	34	4.876	33
51 eta 55 urte bitarte	3.561	22	3.493	23	3.416	23	3.301	22	3.215	22
55 urtetik gorakoak	4.131	26	4.250	28	4.337	29	4.430	29	4.534	31
Batez besteko adina	49	-	50	-	50	-	50	-	50	-

Nabarmendu behar dugu 50 urtetik gorako langileak 2016an ehuneko 48 izatetik 2020an ehuneko 53 izatera pasa direla; halaber, 60 urtetik gorako pertsonak 2016an ehuneko zazpi izatetik 2020an ehuneko bederatzi izatera pasa dira. Bestetik, 40 urtetik beherako adina duten langileak ehuneko 18 ziren 2016an eta ehuneko 14, berriz, 2020an.

Azken batean, Ganbera honek bere txostenetan behin eta berriz dakarrenez, langile finkoen kopuruak behera egin du, egiturazko beharrak eta premia iraunkorrak aldi baterako langileekin betetzen ari dira, eta lanpostu hutsen kopuruak





gora egin du. Horren ondorioz, herritarrari zerbitzuak ematen jarraitu behar denez, areagotu egin da NFKAko enpleguaren behin-behinekotasuna, eta urtero handitzen den indize handiegia eta kezkarria lortu da. Hala, giza faktorearen nolabaiteko deskapitalizazioa eta plantillaren zahartzea izan dira ondorioak.

Bestalde, aztertutako datu batzuetan nolabaiteko hobekuntza ikusten da: 2020an, behin betiko baja ia guztiak bete ziren eta premia horiei erantzuteko EPEak onartzen ari dira, nahiz eta oro har plaza horien deialdiak nolabaiteko atzerapena duen.

### *Langile-gastuaren egiaztapenak*

Aztertu dugu ea SAP RRHH aplikazioan (hartan, nominak sortzen dira) kontabilizatutako gastua bat datorren SAPGE'21en aurrekontuan erregistratutakoarekin, eta egiaztatu dugu bat datozela nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptu guztietako gastuak.

Gainera, NFKAko eta haren erakunde autonomoetako langileek 2020ko apirilean sortutako nominaren ordainsari-kontzeptuen lagina berrikusi dugu, zentro itunduetako langileak sartu gabe. Izan ere, pasiboen erregimenekoak dira, apirilean plaza edo gradu batetik bestera aldatzen dira, eta ez dute hilabete osoan lan egin hainbat arrazoiengatik.

Zehazki, nominako 29 kontzeptu aztertu ditugu, guztira 98.470 erregistrotan jasoak, 22.909 laguni dagozkienak, guztira 56,28 milioi euroko zenbatekoarekin. Zenbateko hori apirilean NFKAko langileek sortutako nominaren guztizkoaren ehuneko 72 da.

Egiaztatu dugu aztertutako langileek egoki jaso dituztela aztertutako ordainsari-kontzeptu guztiak, plantillan ezarritakoari jarraituz.

### *Aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzea eta sozietate publiko bihurtzea berrikustea*

Nafarroako Parlamentuak erabaki zuen Nafarroako Kontuen Ganberari honi buruzko fiskalizazio-txostena eskatzea: *“CPEN osatzen duten enpresa publikoetan aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeko eta kontratu horiek hautatzeko prozedurak berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioetara eta ezarritako kontratazio-prozeduretara egokitzeko”*.

Sozietate publikoek egindako jardueren legezketasunari egindako egokitzapenak kontu-ikuskaritzako enpresa pribatuek ikuskatzen dituzte Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiaren tutoretzapean. Lan honen irismenak berariaz jasotzen du aipatutako parlamentu-eskaeraren edukia berrikustea.





Aurreko legezkoatasunari buruzko txostenek berrikusi egin dituzte 2020an eta 2019an aldi baterako kontratazio mugagabe bihurtutako guztiak, guztira 70 eta 35, hurrenez hurren, xehetasun honen arabera:

	2019	2020	Guztira
CEIN	-	1	1
CNAI	1	-	1
INTIA	5	11	16
Nasertic	1	3	4
Nasuvinsa	-	16	16
NICDO	-	8	8
Tracasa Instrumental SL	18	31	49
Tracasa	10	-	10
<b>Guztira</b>	<b>35</b>	<b>70</b>	<b>105</b>

Aipatutako legezkoatasunari buruzko txostenen oinarria eta ondorioak aztertu ditugu, eta, dokumentazio gehigarria eskatu ondoren ondoriozta dezakegunez, oro har, aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeko, berrezartze- eta egonkortze-tasetan adierazitako zifrak errespetatu zirela, ezarritako prozedurari jarraituta, eta aldi baterako kontratazioak bere garaian publizitate-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioei jarraituz egin zirela, baina honako alderdi hauek adierazi genituen:

- Aldi baterako lan-eskaintzen publizitatea enplegua kontratatzeko atari baten bidez egiten da gehienbat.
- Aldi baterako kontratazioko enplegu-eskaintzetan ez dago jasota lanpostu hori mugagabe bihurtzeko aukerarik.
- Hiru sozietatetan, kontratazio mugagabeen kopuruak, hemen aztertutako bihurketak barne, ezarritako berrezarpen-tasa gainditu du, txosten honetako VI.14 epigrafean aztertzen denez. Sozietate horietako bat Tracasa Instrumental da, eta Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzako Estatuko Erakundearen errekerimendu baten ondorioz bihurketak egin behar izan zituen.
- Lau sozietatetan, kasuren batean, ez dago jasota idatzizko proba teknikoak egin direnik betekizun tekniko garrantzitsurik ez duten lanpostu jakin batzuetarako.

Gure gomendioak:

- *Enplegu eskaintzan adieraztea nolako denbora-aurreikuspena dagoen eskaintutako lanpostuak betetzeko, eta haietarako dei egitea administrazio publikoetan sartzeari buruzko erregelamenduan ezarritako epeetan.*
- *Urgentziaz behar diren neurriak ezartzea dauden lanpostu hutsak betetzeko eta enpleguaren behin-behinekotasuna gutxitzeko, araudiaren testuinguruan.*







- *Aldi baterako kontratazioko enplegu-eskaintzak ahalik eta hedabide gehienetan argitaratzea.*
- *Hasierako aldi baterako kontratazio-eskaintzan, eskainitako lanpostua mugagabe bihurtzeko aukera jasotzea, eta, hala ez bada, aldaketa hori egiteko prozedura espezifiko bat ezartzea.*
- *Bete beharreko lanposturako beharrezkoak diren proba teknikoak egitea, baina horren berri jasota.*





## VI.6. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak

2020ko ekitaldian, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 737,90 milioi-koak izan ziren; hau da, gastu guztien ehuneko 16. Horietatik, gastuen ehuneko 53 Osasun Sailari dagozkio, eta ehuneko 19 Gizarte Eskubideei. Kontzeptukako gastu horien xehetasunak eta 2019koaren arteko alderaketa hauexek dira:

Kontzeptua	2019ko ABG	2020ko AGB	Aldea (%) 2020/2019
Errentamenduak eta kanonak	72.381	73.977	2
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	18.754	19.549	4
Materiala, hornidurak eta beste	401.562	449.853	12
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	3.686	1.650	-5
Argitalpen-gastuak	708	372	-47
Osasun laguntzako itunak	59.579	62.961	6
G. Zerb. Zorroan bermatutako g. zerb. kudeatzea	114.843	129.537	13
<b>Gastua, guztira</b>	<b>671.514</b>	<b>737.899</b>	<b>10</b>

Gastu horiek ehuneko hamar igo ziren 2019. urtearekin alderatuta, eta nabarmentzekoak dira materiala eta hornidurak erostearekin lotutako zenbait kontzepturen igoera, ehuneko 11 (45 milioi), gizarte-zerbitzuen zorroaren kudeaketa, ehuneko 13 (15 milioi), eta osasun-laguntzako itunak, ehuneko sei (hiru milioi). Igoera horiek COVID-19aren krisiak baldintzatzen ditu.

Aipatu dugun bezala, ganbera honek osasun-krisiaren kudeaketari buruzko txosten bat argitaratu zuen 2021eko apirilean, NFKAk 2020ko martxotik abendura bitartean COVID-19ak eragindakoa. Txosten horretan adierazi zen 2020ko eta 2021eko 98 kontratu baino ez zirela formalizatu eta Kontratazioaren Atarian argitaratu, guztira 16,68 milioitan, gastua 78,36 milioira iritsi zenean. Ganbera honek horiek formalizatzea eta espedienteak argitaratzea gomendatu zuen. Txosten hau idazteko unean, beste zazpi kontratu baino ez dira argitaratu, guztira 605.104 eurokoak.

### *Aberaste bidegabearen egoeran kontratatzea*

Ganbera honek 2018ko eta 2019ko Kontu Orokorrei buruz egindako txostenak salbuespen bat jasotzen zuen indarraldia amaituta zuten kontratuetan oinarritutako prestazioekin lotutako aurrekontu-gastuei buruz. Egoera horren jarraipena egin dugu, departamentuek Nafarroako Gobernuako Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusiari emandako informazioarekin.





Zehazki, eta informazio horren arabera, honako hauek dira 2020an eta dagoen kontratua amaitu zenetik 2020ko abenduaren 31ra arte bidegabeki aberastuta ordaindutako prestazioekin lotutako datuak. Hauexek dira:

Departamentua	2020an ordaindutako gastua	Kontratuaren amaieratik 2020-12-31ra arte metatutako gastua	Kontratu kop.	Aberaste bidegabearen hasieraren gutxieneko data
Osasuna	56.592.641	173.178.082	60	2017/01/01
Eskubide Sozialak	8.860.726	19.875.748	12	2013/07/01
Lurralde Kohesioa	1.934.879	10.583.513	30	2014/03/02
Unib., Berrik. eta Erald. Dig.	530.747	530.747	2	2020/01/01
Kultura eta Kirola	312.001	559.228	11	2018/08/22
Lehend., Berd., F. Pub. eta Bar.	138.631	138.631	5	2020/01/01
Hezkuntza	132.318	135.946	4	2020/01/01
Ekonomia eta Ogasuna	129.017	3.114.065	3	2019/01/01
Migrazio Politikak eta Justizia	56.666	56.666	1	2020/01/01
Landa Gar. eta Ingurumena	43.288	43.288	1	2020/01/01
<b>Guztira</b>	<b>68.730.914</b>	<b>208.215.914</b>	<b>129</b>	

Ikusten denez, 129 prestazioren kontratua amaitu zenetik (bidegabeko aberaste-egoeran) 2020ko abenduaren 31ra arte metatutako gastua 208,22 milioi eurokoa da, eta horietatik 68,73 milioi ordaindu ziren 2020an.

Kontratuaren indarraldia amaituta duten prestazio horiek ordaintzea eragin duten arrazoiak askotarikoak dira, eta bat datoz NFKAren 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorrei buruzko txostenean adierazi genituenekin (espedienteen hasiera atzeratzea, aurkeztutako errekurtsuak eta abar).

Osasun Departamentuari dagokio gasturik handiena, bai 2020an, bai kontratu hori amaitu zenetik metatuta, 56,59 eta 173,18 milioi euroekin, hurrenez hurren, 60 prestaziorentzat.

Aurreko taulan jasotako zenbatekoetan ez daude jasota O-NOZen gastu batzuei buruzko datuak, dagozkien kontratuen indarraldia amaituta egon arren edo kontratu euskarririk ez izan arren ordaintzen ari diren osasun-hornidura eta sendagai batzuei dagozkienak. Kontzeptu horiei lotutako gastua 127,22 milioikoa izan zen 2020an.

2016ko maiatzean, eta Kontu-hartzailtza Nagusiaren Zerbitzuaren barne kontrolako ekintza-planak kontuan harturik, O-NOZek ekintza-plan bat ezarri zuen honako helburu honekin: 2020rako erosketak guztiak aplikatzekoak diren kontratazio-arauen arabera esleituta egotea.

Ekintza plan hori 2020an amaitu zen, eta, aurtengo urtarrilean, Osasun Departamentuak beste plan bat egin zuen, 2022ra arte. Egungo egoera, O-NOZek aipatutako ekintza-planaren betetzeari buruz emandako datuen arabera, honako hau da: aipatutako osasun-hornidurekin eta sendagaiekin lotutako gastuaren ehuneko 54an legez ezarritako prozedurak jarraitu dira, eta protesi, tresna, material





sanitario, produktu kimiko eta gasei dagozkien gastuen ehuneko 28an; eta gainerakoak direla-eta zenbait ekintza egin dira kasuko kontratazio-prozedura aurrera eramateko.

Bestalde, esanguratsua da Gizarte Eskubideen Departamentuaren gastua ere, 2020an 8,86 milioirainokoa izan zen 12 prestaziorentzat, eta Lurralde Kohesioaren Departamentuarena 30 prestaziorentzat, 1,93 milioira iritsi baitzen ekitaldi horretan.

Kontratua amaituta duten gastu ordaindu horiek 68,73 milioi euroko zenbateko esanguratsua izan bazuten ere, jarraian zehaztuko ditugu 2019-2020 aldirako zenbateko horri dagozkion prestazioen bilakaera eta kopurua:

Departamentua	Ordaindutako gastua			Prestazio kop.		
	2019	2020	Aldea (%) 2020/2019	2019	2020	Aldea (%) 2020/2019
Osasuna	49.475.741	56.592.641	14	37	60	62
Eskubide Sozialak	27.032.706	8.860.726	-67	50	12	-76
Lurralde Kohesioa	2.069.597	1.934.879	-7	36	30	-17
Unib., Berrik. eta Erald. Dig.	1.803.083	530.747	-71	5	2	-60
Kultura eta Kirola	564.076	312.001	-45	4	11	175
Lehend., Berd., F. Publ. eta Bar.	753.894	138.631	-82	4	5	25
Hezkuntza	7.213.453	132.318	-98	6	4	-33
Ekonomia eta Ogasuna	2.987.848	129.017	-96	1	3	200
Migrazio Politikak eta Justizia	-	56.666	-	-	1	-
Landa Garapena eta Ingurumena	47.765	43.288	-9	1	1	-
Herritarrekiko Harremanak	134.121	-	-	1	-	-
<b>Guztira</b>	<b>92.082.284</b>	<b>68.730.914</b>	<b>-25</b>	<b>145</b>	<b>129</b>	<b>-11</b>

Aurreko taula aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- 2020an ordaindutako gastu osoa (68,73 milioi) ehuneko 25 jaitsi da (23,35 milioi) 2019. urtearekin alderatuta.

- Oro har, departamentu guztiek ordaindutako gastuak behera egin du, neurri handiagoan edo txikiagoan, Osasun Departamentuak izan ezik. Izan ere, departamentu horretan gastua ehuneko 14 handitu da, eta 2019an 49,48 milioikoa izatetik 2020an 56,59 milioikoa izatera igaro da.

- Kasu horretan ordaindutako prestazioen guztizko kopurua ere ehuneko 11 murriztu da 2020an, 2019aren aldean (129 prestazio eta 145 prestazio).

- Departamentuen arabera prestazioek gora egin dute kasuren batean, hala nola Osasun Departamentuan, eta beste batean behera egin dute, Hezkuntza Sailean gertatzen den bezala.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta departamentuek emandako datuak direla kontuan hartuta, egoera horretan dauden gastu gehiago egon ote daitezkeen aztertuta gabe, 2020an ordaindu zen ondasun eta zerbitzuetako aurrekontu-gastu arrunta, gutxienez, 193,23 milioikoa izan zen, nahiz eta kontratuen indarraldia





amaituta egon edo ez izan kontratu-oinarririk. Ondasun arrunten eta zerbitzuen ondasun arrunten eta zerbitzuen 2. kapituluko gastuaren ehuneko 26,19 da.

### *Gastuen lagin baten berrikuspena*

Honako gastu hauetan osaera, 2019koekiko aldea eta sortzapen-printzipioaren aplikazioa aztertu ditugu:

Gastuaren deskribapena	Zenbatekoa, 2019	Zenbatekoa, 2020	Aldea (%) 2020/2019
Osasun itunak	59.578.969	62.961.398	6
Itzaleko bidesarien kanonak	67.083.893	68.527.760	2

Egindako berrikuspenetik, honako konklusio hauek atera ditugu:

- Osasun-itunetako gastua 62,96 milioirainokoa izan zen, eta ehuneko sei handitu zen 2019rekin alderatuta, batez ere Nafarroako Unibertsitate Klinikak egindako jardueraren ondoriozko gastua handitu zelako (ehuneko 18).

Ekitaldi bateko abenduko gastua hurrengo urteko aurrekontuari egozteko ohiko praktika dago. Hala, 2020ko aurrekontuan 2019tik datorren 4,32 milioiko gastua kontabilizatuta dago, eta, era berean, 2021eko aurrekontuan 5,34 milioiko gastua erregistratu da.

Hauek dira zerbitzu hori eman duten hornitzaileen kopurua eta jaso duten zenbatekoa:

Zenbat hornitzaile	Jasotako zenbatekoa
2	>22 milioi
5	(Milioi bat eta bost milioi bitarte)
15	(100.000 euro eta milioi bat bitarte)
208	<100.000

Ikusten denez, osasun-itunak 230 hornitzaileekin egin ziren; horietatik bi 22 milioi gorakoak dira: San Juan de Dios Ospitalea, 22,68 milioirekin eta Nafarroako Unibertsitatea Klinika, 22,06 milioirekin.





• Kanonen gastua (itzaleko bidesariak) 68,53 milioikoa izan zen 2020an. Hona hemen xehakatzeara:

Kanona	2019	2020	(milakotan)
			Aldea (%) 2020/2019
Donejakue Bideko autobia	49.461	49.523	0.1
Pirinioetako autobia	17.595	18.991	8
Informatikaren arloko elkarte teknikoen kuotak	7	8	14
Mailegu publikoagatiko ordainsaria	-	6	-
<b>Guztira</b>	<b>67.063</b>	<b>68.528</b>	<b>2</b>

Aurreko gastu horien euskarri den dokumentazioa aztertuta, ikusten dugu autobiei buruzko partidek 11 hilabeteren fakturazioa jasotzen dutela (urtarriletik azarora), bai eta aurreko ekitaldiko abenduko fakturazioa eta ekitaldi horretako likidazioa ere. Hartara, 2020. urteari egotzitako 2019ko gastua 5,52 milioikoa da, eta 2021eko aurrekontuan erregistratutako 2020ko, gastua, berriz, 5,65 milioikoa.

#### *Kontratazio-espeditenteen lagin baten berrikuspena*

NFKA, CPEN, NILSA eta CENER-CIEMAT Fundazioak izapidetutako kontratazio-espeditente hauek fiskalizatu ditugu:

Xedea	Mota	Prozedura	Zenbat lizitatuzaile	Adjudikazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren baja (%)
Orientazio profesionaleko zerbitzua kontratatzea	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasunean publizitatea eginda	1 (1. sorta)	1.742.757	1,5 (1. sorta)
			1 (2. sorta)		0 (2. sorta)
			2 (3. sorta)		0 (3. sorta)
NFKA sozietate publikoen bulegoak garbitzeko zerbitzua	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasunean publizitatea eginda	2 (1. sorta)	466.015	3,9 (1. sorta)
			2 (2. sorta)		1 (2. sorta)
			1 (3. sorta)		
Lohi deshidratatuen garraioa	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasunean publizitatea eginda	2 (1. sorta)	190.354	16 (1. sorta)
			2 (2. sorta)		21 (2. sorta)
CENER-CIEMAT Fundazioa garbitzeko zerbitzua	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasunean publizitatea eginda	4 (1. sorta)	176.654	0,01 (1. sorta)
			2 (2. sorta)		8 (2. sorta)
			3 (3. sorta)		3 (3. sorta)
			1 (4. sorta)		0 (4. sorta)

\*Lizitazio honetako 3. lotea hutsik eta esleitu gabe geratu da, aurkeztutako eskaintza baztertu egin delako, pleguetako zenbait zehaztapen urratzen dituelako.

Aipatutako kontratazio-espeditenteak berrikusita, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, aplikatzekoa den araudiaren arabera izapidetu zirela.





### Lanbide Orientazioko Zerbitzua kontratatzea

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak Lanbide Orientazioko Zerbitzuaren kontratuaren lizitazioari buruzko fiskalizazio-txostena eskatu zion Nafarroako Kontuen Ganberari. Hona hemen txosten horren alderdi batzuk:

Xedea	Mota	Prozedura	Zenbat lizitatuak	Adjudikazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren baja (%)
Orientazio profesionaleko zerbitzua kontratatzea	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginda	1 (1. sorta) 1 (2. sorta) 2 (3. sorta)	1.742.757	1,5 (1. sorta) 0 (2. sorta) 0 (3. sorta)

Jarraian, kontratu honen lizitazioarekin eta esleipenarekin lotutako zenbait alderdi aipatuko ditugu:

- Ganbera honek zerbitzu horren lizitazioa eta esleipena fiskalizatu zuen 2017ko NFKAren Kontu Orokorren irismenaren barruan, eta esparru-akordio baten bidez egin zen. Txostenaren ondorioek adierazten zuten sei loteetatik bi esleitu zitezkeela kontuan hartu nahi zen kolektiboaren espezifikotasunaren eta ezaugarrien arabera, lortutako puntuazioa gorabehera. Horri dagokionez, Ganbera honek uste zuen baldintza-agirietan jasotako aukera horrek urratu egiten zituela berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko tratamenduaren kontratazio-oinarrizko printzipioak.

2018ko martxoan, Gizarte Eskubideen Departamentuak esparru-akordio hori indarrrik gabe uztea erabaki zuen, eta beste bat egin zen 2018ko apirilean. Akordio berri horrek, hobekuntza batzuk sartu bazituen ere, esleitzeko aukera horri eutsi zion, kolektiboaren espezifikotasunaren arabera, lortutako puntuazioa kontuan hartu gabe.

Horri dagokionez, baldintza-agirietan adjudikazio-irizpideak argi zehaztea eta haiek aplikatuz lortu diren puntuazioak errespetatzea gomendatzen dugu, egiten diren esparru-akordioei dagozkien kontratuak kontratazioari buruzko araudiaren printzipio zuzentzaile guztiak errespetatuz adjudikatze aldera.

Ikusi dugunez, egindako esleipen berri honetan aurreko gomendioa ezarri da, eta baldintza-agirietan jada ez da jasotzen loterik esleitzeko aukera, artatu nahi den kolektiboaren espezifikotasunaren arabera. Gainera, egiaztatu dugu lote guztiak puntuazio handiena lortu duen eskaintzari esleitu zaizkiola.

- 2020ko abuztuan, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zen lizitazio-deialdiaren aurka. Errekurtsio horretan, lizitazioaren izapidetzea bertan behera uzteko eta eteko eskatzen zen, arrazoi hauek argudiatuta: zerbitzu horren merkatu-balioarekin bat ez datorren prezio bat finkatu izana; langile autonomoek erakunde esleipendunen kargura zerbitzuaren orientatzailearen lanpostua garatzeko aukera





kendu izana; eta 2017ko kontratu subrogatuei buruz eman behar zuten informazioari buruzko araudia ez betetzea, eta, horrez gain, 2017ko esparru-kontratuak subrogatzeko eskatzea.

- Gizarte Eskubideen Departamentuko kontseilariak ukatu egin zuen etetea, errekurtsioa ezetsi eta esleipen-prozedurarekin jarraitu zen.

Esleipena 2020ko urrian egin zen, eta ez zen horri buruzko errekurtsorik jarri.

- 2020ko abenduan, gora jotzeko errekurtsioaren ezespeneren aurkako errekurtsioa jarri zen administrazioarekiko auzien epaitegian, jakinarazpenean akatsak zeudela argudiatuta. Auzitegi horrek errekurtsioa onartezintzat jo zuen, errekurtsioa jartzeko epea iraungi zelako.

Kontratu hau esleitzeko espedientea aztertuta ondoriozta dezakegu aplikatu beharreko araudiaren arabera egin zela.

*Larrialdia dela-eta izapidetu diren kontratazio-espediente guztiak formalizatzea eta Kontratazioaren Atarian argitaratzea.*

## VI.7. Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapital- transferentzientzatiko gastuak

### *Transferentzia arruntak*

2020an emandako transferentzia arruntek 1.679,71 milioi euro egin zuten. Aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 37 egiten dute. Gastu horiek ehuneko lau egin zuten gora 2019koekin alderatuta, ondoren erakusten dugun bezala:

	2019	2020	(milakotan) 2020/2019 aldea (%)
Transferentzia arruntak			
Estatuko Administrazioari (hitzarmena)	547.745	549.464	0.3
Fundazioei	13.419	12.760	-5
Enpresa publikoei eta beste ente publiko batzuei	92.583	104.180	13
Toki entitateei	303.398	334.224	10
Enpresa pribatuei	91.320	119.864	31
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	532.114	559.197	5
Kanporako	30	18	-40
<b>Guztira</b>	<b>1.580.609</b>	<b>1.679.707</b>	<b>6</b>

Oro har, gastu-kontzeptu guztiak handitu egiten dira, nahiz eta kanpora eta fundazioetara egindako transferentziak ehuneko 40 eta ehuneko bost murrizten diren, hurrenez hurren.







### *Kapital-transferentziak*

2020an baimendutako kapital-transferentziak 169,03 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko hiru egiten dute, eta ehuneko seiko igoera izan zuten 2019koekin alderatuta, ondoren erakusten den bezala:

Kapital-transferentziak	2019	2020	(milakotan) 2020/2019 aldea (%)
Fundazioei	5.323	4.518	-15
Enpresa publikoei	2.560	2.115	-17
Toki entitateei	76.718	62.785	-18
Enpresa pribatuei	36.452	60.267	65
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	38.752	39.348	2
<b>Guztira</b>	<b>159.805</b>	<b>169.033</b>	<b>6</b>

2020an, transferentzien ehuneko 37 tokiko erakundeei egin zitzaizkien; ehuneko 36 enpresa pribatuei, ehuneko 23 familiei zein irabazi asmorik gabeko erakundeei eta gainerako ehuneko laua fundazioei eta enpresa publikoei.

Gastu osoaren gehikuntzaren arrazoia enpresa pribatuena izan zen, ehuneko 65ekoa (23,82 milioi). Gainerako gastuak murriztu egin ziren, irabazi asmorik gabeko familia eta erakundeena izan ezik, azken hori ehuneko bi hazi baitzen. Toki-erakundeena, berriz, jaitsi egin zen, ehuneko 18 (13,93 milioi).

### *Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa.*

Nafarroak, bere foru-araubidearen indarrez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean 1990eko uztailaren 31n sinatutako hitzarmen ekonomikoari jarraituz gauzatzen du bere finantza- eta tributuzko jarduerak. Hitzarmen hori abenduaren 26ko 28/1990 Legean araututa dago.

Hitzarmen horrek harmonizazio fiskalerako irizpideak ezartzen ditu, bai eta Nafarroak —Foru Komunitateak bere gain hartzen ez dituen estatuaren zamak direla-eta eta tributuen diru-bilketaren doikuntzetarako— egin beharreko ekarpena kalkulatzeko metodoa ere. Ekarpene hori bost urteko epeetarako ezartzen da eta epe horiei aplikatzen zaie.

2020an beste bosturteko baten oinarritzako ekarpena ezarri behar zen. Aldi horretan onartu ez zenez, bigarren xedapen iragankorra aplikatu behar zen. Xedapen horren arabera, bosturtekoaren oinarritzat hartu behar den edozein urtetan ekarpena ez bada epe barruan onartzen, zenbatekoa ekitaldi horretarako finkatuko litzateke eguneratze-indizea aplikatuta, adostutako azken bosturtekoa baino urtebete gehiago izanen balitz bezala.

Alabaina, 2020rako Estatu Aurrekontu Orokorren proiektua onartu ez zenez, ekarpena ere ezin izan zen aipatutako xedapenean ezarritakoaren arabera kalkulatu. Hori dela eta, 2020ko behin-behineko ekarpenaren ordainketak lege horren 63. artikuluan bigarren puntuaren arabera egin dira. Artikulu horren





arabera, behin-behineko ekarpenaren zenbatekoa ezin bada zehaztu ezarritako epeetan, adostutako azken zenbatekoa ordainduko da.

Hori dela eta, Estatuari 529,58 milioiko behin-behineko ekarpena ordaindu zitzaion 2020an, 2019an bezala, taula honetan ageri denez:

Hitzarmena-Aurrekontuko partidak	2019	2020	(milakotan) 2020/2019 al- dea (%)
Estatuarentzako behin-behineko ekarpena	529.583	529.583	0
2018/2019 aldirako Estatuari egindako ekarpenaren behin betiko doikuntza	18.162	19.881	9
<b>Gastu-partiden guztizkoa - Hitzarmena</b>	<b>547.745</b>	<b>549.464</b>	<b>0.3</b>
BEZarengatiko doikuntzak	1.053.354	785.795	-25
Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	-36.164	-24.125	33
Garagardoaren gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	5.867	4.996	-15
Tabakogaien gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	7.618	5.967	-22
Hidrokarburoen gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	103.179	88.967	-14
<i>BEZarengatiko eta zerga bereziengatiko doikuntzak atal honetan, guztira</i>	<i>1.133.855</i>	<i>861.600</i>	<i>-24</i>
Diputazioen parte-hartzea Estatuaren tributuetan	94	100	6
<b>Diru-sarreraren partidak, guztira - Hitzarmena</b>	<b>1.133.949</b>	<b>861.700</b>	<b>-24</b>

Hitzarmenaren ondoriozko 2020ko gastuak 549,46 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 12 egiten dute.

Aplikaturako doikuntzak Hitzarmenaren ondoriozko sarrerei, BEZari eta zerga bereziei dagozkie, eta hitzarmen ekonomikoan aurreikusitako formulen eta metodoen arabera kalkulatu dira.



*Hitzarmeneko gastuen eta diru-sarrerren 2016-2020 aldiko bilakaera*

Hurrengo taulan erakusten dugu Hitzarmeneko gastuek eta diru-sarrerak nolako bilakaera izan duten 2016-2020 aldian:

	2016	2017	2018	2019	2020	(milakotan) 2020/2016 aldea (%)
Estatuarentzako ekarpena	520.687	509.175	529.583	529.583	529.583	2
Sektore elektrikoko zergengatiko konpentsazioa	20.169	1.965	0	0	0	-
Estatuaren ekarpenaren behin betiko doikuntza 2018/2019	0	0	0	18.162	19.882	-
<b>Hitzarmenaren gastuak, guztira</b>	<b>540.856</b>	<b>511.140</b>	<b>529.583</b>	<b>547.745</b>	<b>549.464</b>	<b>2</b>
BEZarengatiko doikuntzak	835.522	889.110	969.918	1.053.354	785.795	-6
Fabrikazioaren gaineko zerga berezientzatiko doikuntzak	-34.987	113.860	52.378	80.501	75.805	-317
Estatuarentzako ekarpenaren behin betiko likidazioa	0	128.694	11.481	0	0	-
Sektore elektrikoko zergengatiko konpentsazioa	2.743	0	0	0	0	-
Diputazioen parte-hartzea Estatuko diru-sarreretan	88	92	93	94	100	14
<b>Hitzarmenaren diru-sarrerak, guztira</b>	<b>803.366</b>	<b>1.131.756</b>	<b>1.033.870</b>	<b>1.133.949</b>	<b>861.700</b>	<b>7</b>

2020an, Estatuari egindako ekarpena eta hitzarmenari lotutako gastu guztiak ehuneko bi igo dira 2016aren aldean.

Diru-sarrerei dagokienez, 2020an ehuneko zazpi handitu dira 2016aren aldean, eta arrazoi nagusia 2017ko abenduan adostutako metodologia-aldaketa eta indize-aldaketa izan dira. Igoera aurreko urteetan izandakoa baino nabarmen txikiagoa da, COVID-19ak eragindako pandemiagatik.

*Itunpeko irakaskuntzarako diru-laguntzak*

ELA sindikatuak honako honi ematen ari zitzaion xedearen fiskalizazioa eskatu zion Kontuen Ganberari: Gobernuaren 2020ko ekainaren 3ko Akordioan Nafarroako 2020ko Aurrekontu Orokorren Foru Legean itunpeko irakaskuntzarako aurreikusitako diru-laguntzen ehuneko 4,5eko igoeraren eta hezkuntza-iturriaren modulu ekonomikoen ehuneko 3,25eko igoeraren arteko % 1,25eko aldea.

Aurreko eskaerari dagokionez, Geroa-Bai talde parlamentarioak galdera bat egin zion NFKari, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean 2020ko abuztuan argitaratua, itunpeko irakaskuntzarako 2020ko aurrekontua handitzeari buruzkoa, eta honako alderdi hauek eskatu zituen:

- ... *Itunpeko irakaskuntzarako 2020rako aurrekontuaren igoeraren xehetasuna: zenbat handitu den 2019ko aurrekontuarekin alderatuta.*

- *Igoera horren xedearen xehetasuna: nola inbertitzen den, zer zati bideratzen den irakasleen soldata-igoerara eta zer zati Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen igoerara.*





- *Zertarako erabiltzen den igoeraren gainerako zatia...*”

Hezkuntza kontseilariak 2020ko irailean erantzun zion galdera horri, eta itunpeko irakaskuntzarako partiden igoerari buruzko xehetasun hauek eman zituen:

Itunpeko irakaskuntzako partiden igoeraren banakapena		
2019ko hasierako aurrekontua	133.675.835	
2020ko hasierako aurrekontua	139.788.162	
Aldea	6.112.327	% 4,57
2019ko aurrekontu bateratua	134.651.674	
2020ko hasierako aurrekontuaren eta 2019ko aurrekontu bateratuaren arteko aldea	5.132.327	% 3,81
2019ko aurrekontu-gehikuntza, unitateak gehitzeagatik, egoera pertsonalak aldatzeagatik, irakasleen ordainsarien % 0,25eko igotzeagatik, eta AZLei % 0,0125eko igoera ordaintzeagatik, hasierako aurrekontuan aurreikusi gabe zegoena.	975.839	
2020ko hasierako aurrekontuaren eta 2019ko aurrekontu bateratuaren arteko aldea		
19/20 ikasturtean izandako unitate-gehikuntza	608.310	% 0,45
20/21 ikasturtean izandako unitate-gehikuntza	150.000	% 0,11
Irakasleen ordainsarien igoera (% 3,25, % 2 administrazioko langile gisa eta % 1,25 2012ko neurrien itzulketa)	3.791.179	% 2,82
AZLen ordainsarien igoera (% 3,25, % 2 administrazioko langile gisa eta % 1,25 2012ko neurrien itzulketa)	292.500	% 0,22
Sektoreko akordioa 2020-06-30era arte luzatzea	80.760	% 0,06
Sare publikoan bezala ordezkatzeta, 2012ko neurriak itzuliz	100.000	% 0,07
Aldaketak antzinatasunekin, gizarte-segurantzarekin ...	113.739	% 0,08
<b>Gehikuntzak, guztira (2020ko hasierako aurrekontua - 2019ko aurrekontu bateratua)</b>	<b>5.136.488</b>	<b>% 3,81</b>

Iturria: Hezkuntzako kontseilariak galdera parlamentario bati emandako erantzuna (Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala)

Aurreko taula aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- Aurreko zenbatekoek eta kontzeptuek itunpeko irakaskuntzaren gastuaren gehikuntzaren xedea azaltzen dute (unitateen gehikuntza, ordainsarien igoera, ordezkapenen irizpide-aldaketa, erretiro partzialen eta ordutegi-murrizketen onarpena, etab.). Ikusi dugu kopuru eta kontzeptu horiek bat datozela 2020an onartu den araudiarekin.

- Hezkuntza Departamentuak bere erantzunean sartu zuen 2019ko eta 2020ko hasierako aurrekontuen (ehuneko 4,57) eta 2019ko aurrekontu finkatuaren eta 2020ko hasierako aurrekontuaren (ehuneko 3,81) arteko aldea.

- 2020an irakaskuntza itunduarekin lotutako aurrekontu-partida guztien gastua aurreikusitakotik desbideratu den aztertu dugu, eta, era berean, 2019an eta 2020an benetan gauzatutako gastua alderatu dugu, eta emaitza hau lortu dugu:





NAFARROAKO 2020KO KONTU OROKORREI BURUZKO FISKALIZAZIO TXOSTENA

2020ko aurrekontu partida	2019ko aurrekontu bateratua	*2020ko aurrekontu bateratua	2020/2019 aurrek. bater. aldea (%)	Aitortutako betebeharrak		2020/2019 ABGen aldea (%)	(milakotan)
				gariak			2020ko aurrek. gauzatua (%)
				2019	2020		
Haur Hezkuntzako 2. zikloa	18.755	19.756	5	18.530	18.899	2	96
Bigarren Hezkuntzako 1. zikloa	17.367	17.597	1	17.536	18.613	6	106
Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa	20.629	21.323	3	20.960	21.924	5	103
Hezkuntza Berezia. Dirulaguntza	5.735	6.001	5	5.807	6.089	5	101
Hezkuntza premia bereziak	3.862	4.038	5	3.634	3.778	4	94
Immigrazioa eta gutxiengo kult.	650	680	5	378	405	7	60
Batxilergoa	10.940	11.447	5	10.755	11.239	5	98
Lehen Hezkuntza	44.835	47.066	5	45.021	46.808	4	99
Zailtasunak dituzten ikasleentzako arreta	1.104	1.118	1	1.050	1.031	-2	92
Erdi mailako heziketa zikloak	5.815	6.001	3	5.942	6.369	7	106
Goi mailako heziketa zikloak	3.856	4.035	5	3.706	3.807	3	94
PFEZren % 0,7ko funtsa Lantegi eskolak	622	662	6	622	662	6	100
Ikastetxe pribatuentzako dirulaguntza	39	40	5	35	35	-	87
Ikastetxe itunduentzako laguntzak	413	423	2	413	194	-53	46
Prestakuntza programak ikastetxe itunduetan	15	30	96	15	12	-19	40
Hezkuntza-berrikuntzako programak	15	15	-	8	4	-51	27
<b>Guztira</b>	<b>134.652</b>	<b>140.232</b>	<b>4.14</b>	<b>134.411</b>	<b>139.869</b>	<b>4.06</b>	<b>100</b>

\* Konparazioan ez da sartu COVID-19ak eragindako osasun-krisiarekin lotutako gastua.





Ikusten denez, aurrekontu bateratuen eta 2019. eta 2020. urteetako aurrekontu-en arteko aldea 4,14koa da, eta ekitaldi horietan benetan gauzatutako gastuaren ehuneko 4,06koa. Ehuneko horiek 2020ko Aurrekontu Orokorren Foru Legean itunpeko irakaskuntzarako diru-laguntzetarako aurreikusitako ehuneko 4,5 baino txikiagoak dira.

Ezin da kontzeptuen araberako azterketa egin, Hezkuntza Departamentuak aurrekontu bateratua eta benetan gauzatutakoa kontuan hartuta egin zuen bezala, kontzeptu horiek aurreko aurrekontu-partidetan banatuta daudelako eta ezin direlako horietako bakoitzaren barruan bereizi. Hala eta guztiz ere, irakaskuntza itunduarekin zerikusia duten aurrekontu-partida guztiak sartu ditugu, eta ezin da beste gasturik egon, gure azterketan jasota ez badago ere.

Bestalde, jarraipena egin dugu Ganbera honek 2018ko maiatzean irakaskuntza itunduari buruz egindako txosteneko gomendioen gainean. Hauek dira NFKAri aplikatu beharreko gomendioak, analisiarekin batera:

- *Hezkuntza Departamentuan berariazko unitate bat sortzea, hezkuntza itunak guztiz betetzen diren kontrola dezan.*

Itunpeko Irakaskuntzaren Kontrol Unitateari administrazio publikoko teknikari lanpostu bat eman zaio (ekonomiaren arloa), lan horiek egiteko.

- *Ikastetxe itunduen lagin batean aurkeztutako ziurtagirien euskarriak eta justifikazioak urtero berrikustea.*

- *Zehatzago adieraztea zer gastu finantza daitezkeen itunen moduluko “Bestelako gastuak” atalean.*

- *Ikastetxe itunduek langileak kontratatzeke erabiltzen dituzten prozedurak kontrolatzea, eta berrmatzea bete-betean aplikatuko direla publikitatearen, me-rezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak.*

- *Ikastetxeetako irakasleen laginak hartu, eta EDUCA plataformaren arabera esleitu zaizkien ordutegiak eta eginkizunak betetzen direla egiaztatzea.*

Ekainaren 20ko 50/2019 Foru Aginduak aurreko lau gomendioen edukia arautu zuen, eta adierazi zuen zer kontzeptu sar daitezkeen Beste gastu batzuen atalean, eta Hezkuntza Departamentuak ikastetxeen lagina berrikusteko betebeharra ezarri zuen. Horrez gain, irakasleak hautatzeko arauak garatu zituen, publikotasun-, gardentasun- eta objektibotasun-printzipioak betetzeko, eta arautu zuen zer datu eman behar dituzten zentroek EDUCAren bitartez, baita zer epe bete behar dituzten ere.

Horri dagokionez, egiaztatu dugu laginketa bat egin dela zenbait ikastetxek 2017/2018 eta 2018/2019 ikasturteetan izandako gastuen gainean. Gaur egun, 2019/2020 ikasturtekoa egiten ari dira. Laginketa horretan, halaber, ordutegiak eta funtzioak betetzen diren berrikusten da, EDUCAk emandako informazioaren bidez.





Bestalde, Itunpeko Irakaskuntza Kontrolatzeko Unitatea arduratzen da langileak kontratatzekeo prozesuen jarraipena egiteaz, ikastetxeek Hezkuntza Departamentuaren webguneari emandako informazioaren bidez.

• *Ikastetxe itunduetako langileen kotizazio-dokumentuak Hezkuntza Departamentuak egitea, nominaren ordainketa eskuordetua dagoeneko berak egiten baitu.*

Departamentua dokumentuak egiten ez baditu ere, horien gaineko kontrola egiten du, hainbat informazio-iturri erkatuta.

Horren ondorioz, Hezkuntza Departamentuak bete egin ditu Ganbera honek itunpeko irakaskuntzari buruzko 2018ko maiatzeko txostenean emandako gomendioak.

#### *O-NOZen zainketa soziosanitarioen arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntza (2017ko deialdia)*

Kontuen Ganberak eskaera bat jaso zuen, O-NOZen zainketa soziosanitarioen arloko ikerketa-proiektuei buruzko 2017ko deialdia fiskalizatzeko. Eskaera horren zenbatekoa 32.000 eurokoa zen.

2017ko urrian, O-NOZek bi proiektu finantzatzea erabaki zuen (guztira, 8.050 euro eta 15.000 euro), eta beste proiektu baten finantzaketa ukatu zen, deialdian eskatutako proiektuaren kalitate tekniko eta metodologikorako 30 puntuko gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik.

Finantzaketarik jaso ez zuen proiektuko ikertzaileak espediente osorako sarbidea eskatu zuen, baita deialdiarekin lotutako dokumentazioaren kopia ere, ikerketa-proiektuen eskaeren kopiarekin eta balorazioa justifikatzen zuten txosten xehatuekin batera betiere. Prozesua luzatu egin zen, dokumentazio horren zati bat jabetza intelektualaren babespean egon zitekeelako. 2018ko martxoan, pertsona horrek gora jotzeko errekurtsua jarri zuen, eta, besteak beste, errekurtsua baiesteko eta deialdiaren ebazpena deuseztatzeko eskatu zuen.

2019ko maiatzean, foru-agindu bidez, zati batez baietsi zen aurreko gora jotzeko errekurtsua, eta prozeduraren atzeraeragina xedatu zen, hain zuzen proiektu onargarrien beste balorazio bat egin zedin, 15.000 euro eman zitzaizkion proiektua baztertu ondoren (epez kanpo egun baterako aurkeztu zelako). Une honetan, errekurtsua jarri zuen eskatzailearen proiektua ezin zen baloratu gerora sortutako ezintasunagatik, ez baitzegoen zerbitzu aktiboan.

2019ko abuztuan, beste ebazpen batek erabaki zuen soilik 8.050 euro eman zitzaizkion proiektua finantzatzea.

Txosten hau idazteko unean, epez kanpo aurkeztu zen proiektuari emandako 15.000 euroak itzultzeko eskatu gabe dago oraindik.





*Proiektuari emandako zenbatekoa lehenbailehen itzultzeko eskatzea gomen-datzen dugu, azkenean zaintza soziosanitarioen arloko ikerketa-deialditik kanpo geratu baitzen.*

## VI.8. Inbertsioak eta ibilgetu ez-finantzarioa

2020ko inbertsioak 142,14 milioi eurokoak izan ziren, aitortutako betebeharrak guztien ehuneko hiru, ehuneko 88ko betetze-mailarekin. Ondoko taulan ageri da 2019ko gastuarekiko erkaketa:

	Gastua, 2019	Gastua, 2020	(milakotan) Aldea (%) 2020/2019
Lurrak eta ondasun naturalak	1.897	557	-71
Obra publikoak	64.136	55.622	-13
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	26.446	30.064	14
Makinak, instalazioak eta tresnak	1.798	2.325	29
Garraio materiala	2.853	2.958	4
Altzariak eta tresneria	11.391	16.205	42
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	6.405	13.103	105
Bestelako ibilgetu materiala	2.439	2.857	17
Ibilgetu ez-materiala	18.350	18.445	1
<b>Guztira</b>	<b>135.715</b>	<b>142.136</b>	<b>5</b>

Inbertsioen ehuneko 37 Lurraldea Kohesionatzeko Departamentuari dagozkie, eta ehuneko 26, berriz, Osasun Departamentuari.





2020ko inbertsioak 2019an egikaritutakoak baino ehuneko bost handiagoak izan ziren, baina gastu hori ehuneko 27 jaitsi da azken hamar urteetan, 2011n 193,93 milioi izatetik 2020an 142,14 milioi izatera igaro baita, jarraian agerienez:

Inbertsioak	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
6. kapitulua, guztira (miliotan)	193.93	142.61	125.05	94.13	91.86	84.86	119.15	152.46	135.71	142.14
Indizea	100	74	64	49	47	44	61	79	70	73

Erabilera edo zerbitzu publikoko azpiegituretan egindako inbertsioak —horietatik 55,62 milioi euro, 2020an, eta horietatik 50,47 errepideetan egindako lanei dagozkie— ez daude jasota balantzearen ibilgetu materialean; izan ere, ibilgetuaren galeren kontzeptuan izandako emaitza ekonomikoari egozten zaizkio.

Ibilgetu ukiezinetan egindako inbertsioak ere ez dira jaso ibilgetu ukiezin moduan balantzearen aktiboan; izan ere, emaitza ekonomikoaren kontuari egozten zaizkio ibilgetu ez-materialaren galera gisa. 2020an, 18,69 milioi euro izan dira.

Oraindik ere ez da definitu, ezta aplikatu ere, amortizazio-politika bat ibilgetuaren ondasunen narriatzea islatzeko.

Kontu Orokorren oroitidazkian ez dago informaziorik ondasun eta eskubideen inbentarioari buruz, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean ezarritakoaz bestera.

### *Inbertsioen lagin baten berrikuspena*

Ekipamendu medikoa erostearekin lotutako gastuaren gauzatzea berrikusi dugu. 2020an 2,13 milioi euro izan ziren, 2019. urtearen aldean ehuneko 14 gutxiago.

Gure azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, gastuak oro har justifikatuta, onetsita, kontu-hartzaitzak onartuta eta behar bezala kontabilizatuta daudela eta 30 egunetik beherako epean ordainduta.





### Kontratazio-espedienteen lagin baten berrikuspena

Nasuvinsa, Nilsa, Trabajos Catastrales SA eta Nasertic-en inbertsioak esleitzeko espedienteen lagin bat berrikusi dugu, baita 2020ko gastuak ere. Hona diru-sarrerara horiek zehaztuta:

Xedea	Prozedura	Adjudikatze- irizpidea	Zenbat li- zitatzaile	Adjudikazi- oaren zen- batekoa	Adjudikazio- aren baja (%)
Eguesibarren 103 BOE egiteko lanak	Irekia, Europar Batasunean publikitatea eginda	Kalitatea-prezioa erlaziorik onena	4	10.664.973	5
NovaSeq 6000 sekuentziazio-ekipoa eskuratzea	Lizitazio deialdirik gabe negoziatua	Ez da aplikatzen	1	868.928	0
Valtierrako ekaitz-tanga hobetzea	Prozedura erraztua	Kalitatea-prezioa erlaziorik onena	2	93.690	12
Ekipamendu informatikoa erostea	Larrialdiko tramitazioa	Ez da aplikatzen	1*	24.402	-

\* Hasiera batean, hornidura hori esparru-akordio batekin kontratatzen saiatu ziren, baina ez zen bide horretatik egin, eskaintako entrega-epetek ez baitzituzten uzten COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko premiei erantzuten.

Oro har, aipatutako kontratuak esleitzeko espedienteak Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen arabera izapidetu dira, baina honako hau adierazi behar dugu:

103 BOE eraikitzeke obren esleipenarekin lotutako baldintza-agiriek formula bat ezarri zuten lizitatzaileek kontratua gauzatzeko epeari buruz egindako proposamenen balorazio haztatua egiteko, esleipen-irizpide gisa. Formula hori aplikatzeak lizitatzaile bakoitzaren balorazio haztatuak desitxuratzeko dakar. Izan ere, gauzatze-epea esleitzeko irizpiderako -puntuazioa bost puntura iritsi zen- eskaintza guztiek gutxienez 4,37 puntu lortzen dituzte bostetik, baita prestazioa gauzatzeko epearen hobekuntzarik eskaintzen ez bada ere.

Horrek esan nahiko luke, gainera, bost puntuko 0,63 puntuko formula baten bidez soilik ematen badira objektiboki, eta esleipenaren puntu guztiak eta formularen bidez esleitutakoak kontuan hartuta, ez dela beteko araudian ezarritako eskakizuna, hau da, gutxienez puntuazioaren ehuneko 50 formula horien bidez lortzea.

*Esleipen-irizpideak arautuko dituzten balorazio haztatuko formulak sortzea gomendatzen dugu, lizitatzaileek aurkeztutako bajak kontuan hartuta.*





## VI.9. Zergak, tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak

*Zergak*

2020ko ekitaldian zergengatik aitortutako eskubideek 3.658,70 milioi euro egin zuten. Eskubideen guztizkoaren ehuneko 77 egiten dute.

Ondoren, eskubide horiek erakusten ditugu, zerga-figura desberdinetarako, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

Zergak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%), 2020/2019
	2019	2020	
PFEZ	1.551.747	1.538.518	-1
Sozietateak	275.300	250.234	-9
Egoiliar ez direnen errenta	6.089	-1.788	-129
Ondarea	39.764	40.132	1
Oinordetzak eta dohaintzak	46.138	61.640	34
Banku-gordailuen gainean	5.241	5.590	7
Energia-ekoizpenaren balioaren gainean	31.638	30.173	-5
Saltoki handiak	1.958	1.545	-21
Loterietako eta apustueta sariak	2.647	2.525	-5
<b>1. Zuzeneko zergak</b>	<b>1.960.521</b>	<b>1.928.569</b>	<b>-2</b>
BEZa	1.343.419	1.184.317	-12
Zerga bereziak	539.004	461.484	-14
Kontsumoen gaineko beste zerga berariazko batzuk	-74	-5	-93
Aseguru primen gaineko zerga	21.198	21.748	3
Ondare-eskualdaketak	54.283	47.348	-13
Egintza juridiko dokumentatuak	14.794	12.665	-14
Joko-jarduerak	1.889	1.844	-2
Berotegi-efektuko gas fluordunak	781	727	-7
<b>2. Zeharkako zergak</b>	<b>1.975.294</b>	<b>1.730.128</b>	<b>-12</b>
<b>Zergak, guztira</b>	<b>3.935.815</b>	<b>3.658.697</b>	<b>-7</b>

Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- Zergengatik aitortutako eskubideak ehuneko zazpi jaitzi dira 2019. urtearekin alderatuta, 3.935,82 milioitik 3.658,70 milioira. Zerga gehienek behera egin dute, baina zuzeneko zergek ez dute zeharkako zergak adinako beherakada handirik izan.

- Hiru zerga-figura garrantzitsuenei dagozkien eskubideak murriztu egin dira: PFEZk ehuneko bat (13,23 milioi), sozietateen gaineko zergak ehuneko bederatzi (25,07 milioi) eta BEZak ehuneko 12 (159,10 milioi).

PFEZren gaineko eragina beste zerga-figura batzuen bano txikiagoa izatea eragin duen arrazoi nagusietako bat da NFKAk, eta bereziki O-NOZek, COVID-19aren ondoriozko premiei erantzuteko egin zuen kontratazioa. Aitzitik, osasun-krisiak jardura ekonomikoan eta kontsumoan izan zuen eraginak inpaktu nabarmena izan zuen BEZe.





- Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ondoriozko diru-sarrerek zeinu negatiboa izan dute, 1,79 milioikoa guztira, eta 6,09 milioikoa izan da 2019ko zentzu positiboan. Aldaketa horren eta 2020an sortutako saldo negatiboaren arrazoi nagusia hauxe da: dibidenduak jasotzen dituzten erakundeek lau urteko epea dute atxiki zaien eta egiten jarraitu duten zenbatekoa erreklamatzeko, eta indarrean dagoen urtean ez zaiela kopuru esanguratsurik atxiki, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren aurrean dibidenduen ia banaketarik ez dagoelako.

- Ekonomia eta Ogasun Sailak ahaleginak egin dituen arren, oraindik ere arazoak daude CATen informazio egokirik ez dagoelako, bilketa garbia SAPGE21 sisteman behar bezala islatzeko baliagarria izan dadin, zeren eta egungo eta aurreko ekitaldietako eskubideek sortutako kobrantzak barne hartzen baititu. Gainera, CATeko datu horiei esker, kobrantzen zenbatekoak ezin dira bereizi printzipalaren, errekaruen eta interesen artean. Hori dela eta, CATek ematen duen informazioarekin, Hitzarmen Ekonomiko, Azterketa Fiskal eta Administrazio Zerbitzuak txosten bat egiten du; bertan biltzen da txosten horretan uneko ekitaldiko kobrantzei dagokien zenbatekoa, urtean edo aurreko urteetan sortutako eskubideetatik datozen bereizi gabe. Zifra hori erabiltzen du NFKaren Kontabilitateko atalak aurrekontuan islatutako zerga bakoitzaren bilketa garbia lortzeko.

- BEZari dagokionez, kontuan hartu behar da BEZagatik aitortutako eskubideak Nafarroak edo Estatuak zerga horren zuzeneko kudeaketatik datozen, zerga horren gaineko hitzarmen ekonomikoan ezarritako doikuntzengatik. Hona diru-sarrera horien jatorria banakatuta:

(milakotan)

Aitortutako BEZa	2018		2019		2020	
	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa
Zuzeneko kudeaketa	300.479	24	290.065	22	398.522	34
Hitzarmenaren doitzea	969.918	76	1.053.354	78	785.795	66
<b>BEZa, guztira</b>	<b>1.270.397</b>	<b>100</b>	<b>1.343.419</b>	<b>100</b>	<b>1.184.317</b>	<b>100</b>

Ikusten denez, aitortutako eskubide gehienak Hitzarmenaren ondoriozko doikuntzen ondorioz sortzen dira. 2020an, NFOren zuzeneko kudeaketak gora egin du, eta 2019ko BEZaren eskubide guztien ehuneko 22tik ehuneko 34ra igaro da.

Bestalde, 2020ko ekitaldiaren itxieran konpentsatu beharreko BEZa 180,24 milioikoa da, eta itzulketa eskatzeko eskubidea edo konpentsazioa egitekoa bost urteren buruan iraungitzen da (itzulketa hurrengo ekitaldiko urtariletik aurrera eska daiteke). BEZ hori CAT kontu batean jasotzen da. "BEZ orokorra" izena dauka kontuak, eta ez da kontabilitate orokorrean islatzen. Aurrekontuari egozten zaio itzultzen edo konpentsatzen denean, baldin eta konpentsaziotik NFOri ordaindu beharreko saldo bat ateratzen bada. Oroitidazkian, ez da kontu horri buruzko informaziorik ematen.

- CATetik kudeatutako itzulketak —eskudirukoak nahiz konpentsaziokoak izan—, orokorrean aurrekontu-likidaziora aldatu direnak, 1.385,17 eurokoak





izan dira, Estatuarekiko doikuntzak kontuan hartu gabe. Kopuru hori ehuneko bi txikiagoa da 2019koa baino. Itzulketen izaerari erreparatuta, haien ehuneko 86 eskudiruan egin dira.

Ondoren, 2020ko zerga garrantzitsuenen itzulketak azaltzen ditugu, aurreko ekitaldikoekin alderatuta:

Zergen itzulketa	(milakotan)	
	2019	2020
BEZ zuzeneko kudeaketa	966.738	1.074.217
PFEZ	186.828	210.206
Sozietateak	106.849	83.250

Azken urteetan gertatu den bezala, zuzenean kudeatutako BEZa da itzulketa bolumen handiena sortzen duena; guztizkoaren ehuneko 77 dira.

• Kontu Orokorren oroitidazkiak informazioa dauka zerga-onuren exekuzioari buruz; honako hau da haren laburpena:

Zergak	(milakotan)		
	Aurrekontua 2020ko onura fisk.	Emitzak 2020	Gauzatze ehunekoa
PFEZ	407.811	413.952	102
Sozietateak	122.223	127.056	104
Ondarea	41.646	44.011	106
Egoiliar ez direnen errenta	4.105	179	4
Oinordetzak eta dohaintzak	9.489	10.647	112
<b>1. Zuzeneko zergak</b>	<b>585.274</b>	<b>595.843</b>	<b>102</b>
BEZ	831.228	701.029	84
Zerga bereziak	80.032	61.564	77
Aseguru primen gaineko zerga	8.740	8.347	95
Ondare eskualdaketak eta egintza juridiko dokumentatuak	7.157	6.068	85
<b>2. Zeharkako zergak</b>	<b>927.157</b>	<b>777.009</b>	<b>84</b>
<b>Onura fiskalak, guztira</b>	<b>1.512.431</b>	<b>1.372.852</b>	<b>91</b>

Oroitidazkiak duen informazioaren arabera, 2020ko onura fiskalak 1.372,85 milioikoak dira, ehuneko bederatzian aurreikusitakoa baino txikiagoa. Oroitidazkian, beraz, ez da ematen onura fiskal bakoitzarekin lortu nahi diren helburuei buruzko daturik, ezta onurok lortzeari buruzkorik ere.

Era berean, Ganbera honen azken urteetako txostenetan adierazi den bezala, esanguratsua da honako ratio hau izatea: “onura fiskalak/aintzatetsitako eskubide garbiak + mozkin fiskalak) 2020ko ekitaldirako aintzatetsitako eskubide garbien ehuneko 27.





### Zerga iruzurraren kontrako borroka

NFOk emandako datuen arabera, 2010etik 2020ra zerga iruzurraren aurkako borroka diru-sarrerara hauek sortu ditu:

(milakotan)

Ekitaldia	Tributuen kudeaketa	Ikuskapena	Tributu arloko bestelako jard.*	Guztizko zenbategia	Indizea
2010	67.518	54.852	0	122.370	100
2011	52.045	38.808	0	90.853	74
2012	58.648	69.499	0	128.147	105
2013	57.358	37.826	0	95.184	78
2014	56.137	28.681	0	84.818	69
2015	50.992	45.610	8.129	104.731	86
2016	58.774	46.142	19.363	124.279	102
2017	94.408	33.586	20.984	148.978	122
2018	88.961	53.993	27.154	170.108	139
2019	93.514	38.536	23.487	155.537	127
2020	56.782	27.154	74.380	158.316	129

\* 2015ean bestelako tributu jardueren kontaketa hasi zen.

Zerga-iruzurraren aurkako borrokatik sortutako diru-sarrerak nabarmen aldatu dira, eta 2014an izan dute baliorik txikiena; hala ere, ordutik aurrera handitu egin dira, eta 2020an 158,32 milioira iritsi dira.

Taula honetan, 2019ko eta 2020ko ekitaldietako iruzurraren aurkako jarduketak alderatuko ditugu, xehetasun handiagoz, NFOren oroitidazkian jasotako informazioaren arabera:

(milakotan)

Zerga iruzurraren kontrako borroka	2019		2020	
Ikuskapena	Jarduketa kop. zenbategia		Jarduketa kop.	Zenbategia
Ikuskapen aktak	3.864	14.728	3.636	15.356
Zehapen-espedienteak	1.756	6.495	1.543	6.071
Erantzukizun zibila, delituengatik	4	12.026	25	1.045
Ikuskatzaitzak induzitutako erregularizazioak	45	2.045	17	760
Kreditu fiskalak deuseztatzea	78	3.242	80	3.922
<b>Ikuskapena, guztira</b>	<b>5.747</b>	<b>38.536</b>	<b>5.301</b>	<b>27.154</b>
Zergen kudeaketa	Likidazioen kop.	Zenbategia	Likidazioen kop.	Zenbategia
BEZa	7.383	18.305	6.924	10.817
PFEZ	4.754	5.545	3.730	5.739
Sozietateak	525	4.471	769	4.847
Gainerako zergak	4.208	17.255	2.020	6.085
Zehapenak	22.744	13.005	27.505	10.557
Epez kanpoko aitortpenen errekarquak	8.904	3.132	4.171	1.123
Errekerimenduak	8.985	3.029	7.185	3.082
Kudeaketaren diru-sarrerara induzituak	12.812	28.772	7.486	14.532
<b>Tributu-kudeaketa, guztira</b>	<b>70.315</b>	<b>93.514</b>	<b>59.790</b>	<b>56.782</b>

2020an, ikuskapen-arloko jarduketak ehuneko zortzi jaitzi dira 2019tik (446 gutxiago), eta horrek ehuneko 30eko eragin negatiboa izan du sortutako diru-





sarreretan (11,38 milioi). Tributuen kudeaketari dagokionez, 2019an baino 10.525 likidazio gutxiago aurkeztu dira 2020an. Halere, sortutako diru-sarrerak ehuneko 39 (36,73 milioi) handiagoak izan dira aurreko urtekoan baino.

Erakutsitako diru-sarreraren sortzapenak ez dakar berekin kopuru horiek ko-bratu izana; arestian aipatu dugun bezala, CATen diseinuan eta tributuen kudeaketan eta kontabilitatean erabiltzen diren aplikazio informatikoen artean dauden arazoak direla eta, ezin dugu identifikatu zerga-iruzurraren aurkako borrokan de-tekstatutako kopurutik zenbat diru bildu den egiazki.

*Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk.*

Tasak, prezio publikoak eta aitortutako bestelako diru-sarrera garbiak 130,02 milioi eurokoak izan dira 2020. urtean. Ekitaldiko eskubide guztien ehuneko hiru egiten dute, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

(milakotan)				
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk.	Aitorturiko eskubide garbiak, 2020	Diru-bilketa garbia	Diru-bilketa- ren ehunekoa	Ait. esk. garbien aldea, 2020/2019 (%)
Tasak	13.250	12.559	95	-8
Prezio publikoak	51.238	45.248	88	-8
Ondasunak saltzea	2.126	2.071	97	3
Eragiketen itzulketak	9.445	6.000	64	-14
Beste diru-sarrera batzuk	53.959	29.141	54	-16
<b>Guztira</b>	<b>130.018</b>	<b>95.01995.019</b>	<b>73</b>	<b>-12</b>

Kapitulu honen osagairik aipagarriena prezio publikoen bidezko diru-sarrerei dagokie: 51,24 milioikoak izan ziren, eta horien artean nabarmentzekoak dira osasun-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuak emateagatiko diru-sarrerak, 49,90 milioi egiten dutenak.

Bestetik, tasen bidezko diru-sarrerak 13,25 milioi eurokoak izan ziren, eta horietatik 8,85 milioi joko-jardueratik heldutako tasei dagozkie.

Honako hauek dira "bestelako diru-sarrerak" izendapenaren pean sartzen diren kontzeptu nagusiak: isunak eta zehapenak, 23,13 milioi; ginkarguak, 11,99 milioi, eta berandutza-interesak, azkenik, 6,19 milioi.

Gure gomendioak:

- *ZPKP planaren arabera kontabilitate-garrantzia duten zerga-kudeaketako eta bilketako jarduerak finantza-egoeretan behar bezala jasota gera daitezen beharrezko informazioa lortzeko prozesuak ezartzea, datu horiei trazabilitatea eta behar adinako euskarria emanaz.*

- *CAT aplikazioa aldatzea, SAPG21 sistema elikatzen duten eta finantza-egoerak egiteko informazio fidagarria ematen duten zergen bilketari buruzko datuak lortzeko, eta, era berean, beste arlo batzuk kudeatzen eta aztertzen laguntzeko, hala nola iruzur fiskalaren aurkako borroka.*





- Oroitidazkian BEZ orokorra izeneko kontuari buruzko informazioa ematea.
- Onura fiskalak onartzen dituzten arauetan, lortu nahi diren helburuen eta horiei lotutako adierazleen azterketa sakonagoa sartzeara, neurri horiek ebaluatu ahal izateko.
- Onura fiskal bat onartu aurretik kostu-onuraren azterketa zehatza egitea.

## VI.10. Bestelako diru-sarrerak

### Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak

Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak 243,83 eta 20,52 milioikoak izan ziren, hurrenez hurren, ondoren azaltzen dugun bezala:

	Aitortutako eskubide garbiak		2020/2019 aldea (%)	Diru-bilketa garbia, 2020
	2019	2020		
Estatuko Administrazio Orokorraren transferentzia arruntak	44.578	227.397	410	227.347
Fundazioen transferentzia arruntak	240	236	-2	236
Enpresa publikoen eta beste ente publiko batzuen transferentzia arruntak	12	154	1.183	154
Toki entitateen transferentzia arruntak	639	1.270	99	1.172
Enpresa pribatuen transferentzia arruntak	172	216	3	216
Familien eta irabazi asmorik gabeko erakundeen transferentzia arruntak	25	201	704	201
Kanpotik datozen transferentzia arruntak	18.025	14.358	-20	14.169
<b>Transferentzia arruntak, guztira</b>	<b>63.691</b>	<b>243.831</b>	<b>283</b>	<b>243.495</b>
Estatuko Administrazio Orokorraren kapital-transferentziak	5.735	9.042	58	9.042
Enpresa publikoen eta beste ente publiko batzuen kapital-transferentziak	1.369	41	-97	41
Toki entitateen kapital-transferentziak	53	3.453	6.392	2.733
Familien eta irabazi asmorik gabeko erakundeen kapital-transferentziak	1.294	6	-100	6
Kanpotik datozen kapital-transferentziak	15.130	7.978	-47	7.965
<b>Kapital-transferentziak guztira</b>	<b>23.581</b>	<b>20.520</b>	<b>-13</b>	<b>19.786</b>

Transferentzia arruntengatiko sarrerak ehuneko 283 (180 milioi) igo ziren, batez ere Estatutik jasotako zenbatekoaren ondorioz, COVID-19ak sortutako pandemiaren ondorioz, 183 milioira iritsi baitzen.

Kapital-transferentziengatiko sarrerak ehuneko 13 jaitsi dira (hiru milioi), nahiz eta portaera desberdina izan, kontzeptuaren arabera. Hala, EGEFetik eta LGENFtik datozen transferentziak ehuneko 47 jaitsi dira (zazpi milioi), baina toki- eta estatu-erakundeetatik jasotakoak hiru milioi gehiago izan dira bi kasuetan.

Honako transferentzia hauen gauzatzea berrikusi dugu:







(milakotan)

	Aitortutako esku- bide garbiak	Diru-bilketa garbia
Estatuko Kapital Transf. PREE programa, eraikinen birgaitze energetikoa	4.125	4.125
Estatuko kapital-transferentzia Farmaindustria inbertsioa Tuteran	1.915	1.915

Egindako berrikuspenaren konklusioa da ezen espedienteak izapidetzerakoan aplikatzekoa den araudiari jarraitu zaiola, eta zenbatekoak ezarritako epeetan jaso eta egoki kontabilizatu direla.

## VI.11. Epe laburreko zordunak eta hartzekodunak

### Zordunak

2020ko abenduaren 31n, hartzekodunen saldoa 380,95 milioi eurokoa zen, eta honako hauei zegokien:

Zordunak	2019/12/31	2020/12/31	(milakotan) Aldea (%) 2020/2019
Aurrekontuko zordunak	895.780	904.852	1
Aurrekontukoak ez diren zordunak	14.247	38.575	171
Beste ente publiko batzuen baliabideetako zordunak	3.158	3.572	13
Bestelako zordunak	5.062	5.193	3
Kaudimen gabeziatarako hornidura	(550.156)	(571.156)	4
<b>Zordunak, guztira</b>	<b>368.091</b>	<b>380.945</b>	<b>3</b>

Aurreko taula aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- Aurrekontuko zordunak dira osagai garrantzitsuenak, eta, funtsean, kudeaketa arrunteko egoeran dauden tributu-zordunak dira (kudeaketa arrunta, premiamendu-bidea, tributu-zorraren geroratzea).

2020ko abenduaren 31n, saldoa 904,85 milioi eurokoa zen, eta haren ehuneko 63 kaudimengabeziei zegokien (571,25 milioi euro). Hauxe da banaketa:

Aurrekontuko zordunak	2019/12/31	2020/12/31	(milakotan) Aldea (%), 2020/2019
Departamentuetako zordunak	15.976	13.146	-18
Zordunak: ohiko kudeaketa	223.043	220.372	-1
Luzapena eman zaien zordunak	76.344	67.035	-12
Premiamendu bideko zordunak	552.113	576.657	4
Egoera berezietako zordunak	21.191	13.818	-35
Erosketak itzultzeagatiko zordunak	419	447	7
<b>Zordunak</b>	<b>889.086</b>	<b>891.475</b>	<b>0.3</b>
Sortu ez diren korrituak eta gainkarguak	9.0871.778.172,00	13.3771.782.950,00	47
Kobrantzak eta aplikatzeko dauden sortak	(2.393)	-	-
<b>Aurrekontuko zordunak, guztira</b>	<b>895.780</b>	<b>904.852</b>	<b>1</b>

2020ko aurrekontu-zordunen saldo globala aurreko ekitaldikoaren ia berdina da, ehuneko bat handituta (9,07 milioi). Nabarmentzekoa da egoera berezietan (7,37 milioi) eta atzerapenarekin (9,31 milioi) dauden zordunen ehuneko 35 eta





12ko beherakada, eta, bestalde, premiamendu-bidezko zordunen gehikuntza, ehuneko lau (24,54 milioi).

- Tributuen aurrekontu-likidazioaren, diru-bilketaren eta itzulketaren eta zuzenbide publikoko zenbait diru-sarreraren kudeaketa —esate baterako, interesak eta errekaraguak— CAT aplikazio informatikoaren bitartez egiten da; hartatik, informazioa SAPGE21 aplikaziora aldatzen da.

Ganbera honek aurreko txostenetan ohartarazi izan duen bezala, CAT sistemak ez du ematen nahikoa informaziorik zergen kontabilitatea behar bezala islatzeko aurrekontu-likidazioan eta egoeraren balantzean. Hartara, ez da bereizten ekitaldi arruntetako zordunen eta itxitako ekitaldietako zordunen artean, eta ez dira deuseztatzen, ezta ere, aitortutako eskubideak, zorraren geroratzea ematen zaien zordunei dagozkienak, kontabilitate-plan orokor indardunean ezarritako irizpideez bestera.

Zordunak ez dira balantzean jasotzen, kontabilitate publikoko plan orokorrean ezarritako sailkapenaren arabera, ez eta mugaeguneratu gabeko interes eta gainkarguak eta aplikatzeko dauden kobrantzak ere; izan ere, horiek zordunen saldotik kentzen dira, eta balantzearen pasiboan erregistratu beharko lirateke, aurretutako diru-sarrera eta zordun gisa, hurrenez hurren.

- "Sortu gabeko interesak eta errekaraguak" epigrafean kontu bat dago, mugaeguneratu gabe dauden eta CATek SAPGE21era bidaltzen duen informazioarekin sartu ahala kitatzen diren emandako gerorapenen interes kontabilizatuak jasotzen dituenak. Hortaz, kontu horrek saldo hartzekoduna izan beharko luke beti.

Egiaztatu dugu kontu honek saldo zorduna duela 2019an eta 2020an, datuak ateratzean akats bat egin zelako, eta horrek berekin zekarrelako zenbait zenbaterako oker kontabilizatzea. Horren ondorioz, kontu honetan 16,92 milioiko doikuntza egin behar da.

Akats hori bera ikusi da zatiketak erregistratzen dituen kontuan, eta kasu honetan doikuntza ez-esanguratsua egin behar da, 38.655 euro guztira.

- "Aurrekontukoak ez diren zordunak" epigrafean, "Diru-laguntzen aurrerakintzatik zordunak" kontua sartu da; kontu horren saldoa 38,44 milioikoa zen 2020ko abenduaren 31n.

Kontu honetan daude jasota araudi aplikagarriaren arabera aurrerakintzat hartzen diren eta onuradunak ondoren justifikatu behar dituen diru-laguntzak. Saldoa ezeztatu egin behar da diru-laguntza emateko baldintzak betetzen direla egiaztatzen denean, orduan egotziko baitzaio gastua emaitzen kontuari.

Ez dago kontu hori kontabilizatzeko prozedura zehatzik, eta ezin izan dugu egiaztatu kasu guztietan haren saldoa murriztu denik justifikatutako zenbatekoan edo justifikatu gabeko zatian. Hortaz, ezin dugu zehaztu balantzeko saldo hori zuzena den.





Enpresa pribatuentzako diru-laguntzei buruz Ganbera honek 2021eko irailean argitaratutako txostenean adierazitako gai bat da.

- “Beste zordun batzuk” xehatzeari dagokionez, nabarmentzekoa da CATen formalizatzeko dauden eragiketen kontua (CATen eta kontabilitatearen arteko lotura-kontua); 4,57 milioiko saldoa baitu. Ganbera honek aurreko txostenetan ohartarazi duenez, zenbateko hori ez dago behar bezala oinarrituta, eta hala adierazten du Kontu Orokorren oroitidazkiak.

### *Epe laburreko hartzekodunak*

Epe laburreko hartzekodunen saldoa, obligazioen jaulkipenari eta beste balio negoziagarri batzuei dagozkienak jaso gabe, zeren eta jadanik aztertuta baitaude, 413,44 milioi eurokoak dira 2020ko abenduaren 31n, eta honako hauei dagozkie:

			(milakotan)
Epe laburreko hartzekodunak	2019/12/31	2020/12/31	2020/2019 aldea (%)
Aurrekontuko hartzekodunak	373.386	236.602	-37
Beste entitate batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko hartzekodunak	7.179	10.123	41
Administrazio publikoak	4.113	4.619	12
Beste hartzekodun batzuk	122.115	157.699	29
Epe laburreko fidantzak eta gordailuak	3.861	4.394	14
<b>Epe laburreko hartzekodunak, guztira</b>	<b>510.654</b>	<b>413.437</b>	<b>-19</b>

Hartzekodunen kopuru hori ehuneko 19 jaitsi da (97,22 milioi); osagai garrantzitsuena aurrekontuko hartzekodunak dira: guztizkoaren ehuneko 57 dira eta ehuneko 37 jaitsi dira (136,78 milioi) 2019arekin alderatuta. “Beste hartzekodun batzuei” dagozkien kontuak ehuneko 29 gehitu dira (35,58 milioi).

Esana dugunez, CAT eta SAPGE21 loturaren inguruko arazoak jarraitzen du, eta horren ondorioz, bi aplikazioen artean informazioa ez da egokia. Horrek esan nahi du aurrekontuen hartzekodunen epigrafea, zergak eta beste hartzekodun batzuk itzultzeagatik, CATek zordunei eta hartzekodunei buruz ematen duen zerga-informazioarekin kontabilitatez kanpoko doikuntza bat eginez lortzen dela. 2020an, doikuntza orokorra 163,73 milioi eurokoa izan zen.

Gure gomendioak:

- *Gerorapen eta zatikapenengatiko interesen kontuetan dagozkion doikuntzak egitea, balantzean aktiboaren eta pasiboaren irudi zehatza erakusteko.*

- *Balantzeko kontu jakin batzuetan kontrolak eta zenbatekoak gurutzatzea, fidagarritasuna eta zuzentasuna egiaztatzeako, CATetik datorren informazioa kontuan hartuta.*

## VI.12. Diruzaintza

2020ko abenduaren 31ko diruzaintza 444,16 milioi eurokoa zen, eta honako kontu mota hauetan zegoen:





Kontzeptua	(milakotan)		
	Saldoa 2019-12-31n	Saldoa 2020-12-31n	2020/2019 aldea (%)
Diru-sarreraren kontu bereziak	12.497	16.449	32
Diru-bilketarako kontu murriztuak	83.537	95.042	14
Kontu korrante operatiboak	316.426	332.667	5
<b>Guztira</b>	<b>412.460</b>	<b>444.158</b>	<b>8</b>

Diruzaintzako saldoak ehuneko zortzi (31,70 milioi) igo dira, batez ere kontu operatiboen saldoak 16,24 milioi egin duelako gora eta diru-bilketako kontu murriztuek 11,51 milioi egin dutelako gora.

Banku-zirkularizazioaren bidez lortutako informazioan, honako gorabehera hauek aurkitu ditugu:

- Hainbat finantza-erakunderen kontuak daude, guztira 18,32 milioi eurokoak, eta NFKAren diruzaintzako zerrendan agertzen dira, baina erakunde horiek ez dituzte berretsi, nahiz eta informazio hori behin baino gehiagotan eskatu zaien. Zenbateko horretatik, 14,56 milioi finantza-erakunde baten bilketa-kontu mugatu bati dagozkio.

- Egiaztatu dugunez, NFKAk hiru banku-erakunderi bidali die Ganbera honen gomendioz hainbat kontuetarako baimendutako sinadurak aldatzeko eskaera, baina erakunde horiek ez dituzte aldatu.

*Banketxeei eskatzea baimendutako sinadurak aldatzeko eskaera gauzatzeko gomendatzen dugu.*



## VI.13. Zorpetzea eta beste finantza-eragiketa batzuk

**Zorpetzea**

Foru Administrazioaren eta haren EEAen zorpetzea 3.310,60 milioi eurokoa zen 2020ko abenduaren 31n, kostua amortizatuta, eta honako modalitate hauei zegokien:

(milakotan)			
Nafarroako Gobernuaren zorra	2019/12/31	2020/12/31	2020/2019 aldea (%)
Nafarroako Zor Publikoa	1.117.966	1.047.336	-6
Epe luzeko maileguak finantza-entitateekin	1.539.097	1.980.354	29
Epe luzeko maileguak sektore publikorako	22.246	17.157	-23
<i>Epe luzeko zorpetzea (A)</i>	<i>2.679.309</i>	<i>3.044.847</i>	<i>14</i>
Nafarroako epe laburreko zor publikoa	218.989	206.200	-6
Epe laburreko maileguak finantza-entitateekin	24.403	27.743	14
Epe laburreko zorrak sektore publikoarekin	-	1.684	-
Zor publikoaren epe laburreko interesak	24.396	16.947	-31
Maileguen epe laburreko interesak	13.991	13.182	-6
<i>Epe laburreko zorpetzea (B)</i>	<i>281.779</i>	<i>265.756</i>	<i>-6</i>
<b>Zorpetzea, guztira (A+B)</b>	<b>2.961.088</b>	<b>3.310.603</b>	<b>12</b>

Hona hemen azpimarratuko ditugunak, azterketa egin eta gero:

- Zorpetze osoa ehuneko 12 handitu da 2020an (349,52 milioi), 2019. urtearekin alderatuta.
- 2020an, zor publikoak zorpetze guztiaren ehuneko 38 egiten du; 2019an, berriz, ehuneko 46 egiten zuen.
- Finantza-erakundeez epe luzeko maileguak ehuneko 29 igo dira nabarmen, 2019an 1.539,10 milioi izatetik 2020an 1.980,35 milioi izatera igaro baitira (441,25 milioi).
- 2020an itundutako zorpetzearen eta guztizko zorpetzearen motaren arabera batez besteko interesa ondoren erakusten duguna da:

(milakotan)				
Zorpetze modalitatea	2020an itundutako zorpetzea	2020ko batez besteko interes-tasa	Zorpetzea, guztira 2020/12/31	Batez besteko interes-tasa
Nafarroako Zor Publikoa	135.000	1.05	1.253.537	2.51
Finantza entitateen maileguak	464.000	0.69	1.658.097	1.07
Europako Inbertsio Bankuarekiko maileguak	50.000	0.07	350.000	1.23
Gizarte Segurantzaren mailegua	-	-	9.316	-
Beste sektore publiko batekiko maileguak	-	-	9.525	-
<b>Zorpetzea, guztira</b>	<b>649.000</b>	<b>0.72</b>	<b>3.280.475</b>	<b>1.63</b>

2020an, zorraren batez besteko interes-tasa orokorrak behera egin du 2019koarekin alderatuta: ehuneko 2,11tik ehuneko 1,63ra.





Aurreko urteetan gertatu den bezala, maileguen bidezko zorraren batez besteko interes-tasa nabarmen txikiagoa da zor publikoarena baino.

- NFKAren zorraren guztizkotik heldu den finantza-zamaren bilakaera (aurrekontuaren 3. eta 9. kapitulua) hurrengo taulan erakusten da, diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoaren ondoan.

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Finantza-zama (milioiak)	200.30	300.54	401.48	415.74	519.98	384.80	469.45	412.05	355.57
Indizea	100	150	200	208	260	192	234	206	178
Diru-sarrera arrunten gainean (%)	6	9	12	13	15	10	12	10	9

Finantza-zamak ehuneko 78 egin du gora aztertutako aldian, eta 2020an jaitziera bat izan du 2019an izan zuen goraunearekin alderatuta, ehuneko 14koa. Aztertutako aldi osoan, sarrera arrunten gaineko pisu erlatiboa ehuneko seitik ehuneko bederatzira igo da.

- Hurrengo taulan erakusten dira zorraren guztizkoa datozen ekitaldietan amortizatzeko dauden aurreikuspenak:

Ekitaldia	Amortizatu beharreko zenbatekoa, guztira	(milakotan)	
		Ehunekoa	Ehuneko metatua
2021	235.627	7.2	7.2
2022	250.138	7.7	14.9
2023	247.298	7.6	22.4
2024	242.747	7.4	29.9
2025	269.673	8.3	38.1
2026	221.926	6.8	44.9
2027	308.753	9.4	54.4
2028	294.991	9.0	63.4
2029	220.033	6.7	70.1
2030	270.867	8.3	78.4
2031	40.000	1.2	79.6
2032	114.000	3.5	83.1
2033	126.983	3.9	87.0
2034	32.000	1.0	88.0
2035	159.839	4.9	92.9
2037	65.643	2.0	94.9
2038	43.000	1.3	96.2
2040	74.551	2.3	98.5
2044	49.446	1.5	100
<b>Guztira</b>	<b>3.267.516<sup>1</sup></b>		

Ikusten denez, zorraren erdia (ehuneko 54,4) 2027 baino lehen amortizatu behar da.

Zenbateko horri Gizarte Segurantzarekiko mailegu baten 9,32 milioi eta sailkatu ezin den 3,64 milioi zor gehitu beharko litzaizkioke; zenbateko horien gainean ez dakigu zein izanen den amortizazio-data.





- Banketxe batekin 100 milioiko mailegu bat hitzartzea aztertu dugu, eta gure berrikuspenaren emaitza ona izan da.

- 2021eko martxoan, ratingeko agentzia batek Nafarroako epe luzeko zorrari kalifikazio hau eman zion: “AA-, perspektiba negatiboarekin” (baimendutako gehieneko maila Estatuaren balorazioa kontuan hartuta).

- 2019an, NFKAk finantzaketarako baldintzak hobetzeko plana negoziatu zuen, eta 38 milioi aurreztu zituen. 2020an, COVID-19aren agerpenak eta haren ondorioei aurre egiteko finantza-beharrek hasieran aurreikusitako kitapen guztiak egitea zaildu zuten, baina martxoaren hasieran 45 milioiko mailegu bat aldeztu aurretik amortizatu zen, eta horrek 1,7 milioi aurrezteka ekarri zuen.

### *Emandako abalak*

- Foru Komunitateak emandako abalen saldoa 70,87 eurokoa zen abenduaren 31n, eta honako hauei zegokien:

(milakotan)			
Emandako abalak	Saldoa 2019- 12-31n	Saldoa 2020- 12-31n	2020/2019 aldea (%)
I+G	23	-	-
Zailtasunak dituzten enpresak eta inbertsiorako laguntzak	2.174	1.203	-45
“Nafarroa Abala” programa	976	838	-14
Club Atlético Osasuna	21.887	17.917	-18
NICDO-Los Arcosko zirkuitua	12.115	9.423	-22
Sodena-Europako Inbertsio Bankua	62.500	41.489	-34
<b>Guztira</b>	<b>99.675</b>	<b>70.870</b>	<b>-29</b>

Saldo bizia, guztira, ehuneko 29 jaitsi da (28,81 milioi), eta nabarmentzekoak dira Sodena-Europako Inbertsio Bankuaren (21,01 milioi) eta Club Atlético Osasunaren (3,97 milioi) beherapenak.

2020an, 649.728 euroko bi abal gauzatzearen ondoriozko gastuak gertatu ziren.

Sodenarentzako abala eratu zen sozietate horrek Europako Inbertsio Bankutik jasotako mailegu bat bermatzeko, enpresa txiki eta ertainek Moderna Planaren esparruan egiten dituzten inbertsio-proiektuak finantzatzera bideratua. Printzipalaren gaineko abal bat da (100 milioi), bai eta abala exekutatzeko unean Sodenak entitate horri edozein finantzaketa-kontraturen kontzeptuan (interesak, komisi-oak, zamak eta abar) zor diezaiokeen edozein zenbatekoren gainekoa ere. Gainerako abaletan, NFKAk soilik maileguaren printzipala dela-eta erantzuten du.





## VI.14. Sozietate eta Fundazio Publikoak

*Sozietate publikoak*

Ondoren, Foru Komunitateko sozietate publikoei buruzko datuak ematen ditugu, Kontu Orokorren oroitidazkian bildutako informazioaren arabera:

(milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Sozietatea	Ekitaldiko emaitza	Foru Adminis- trazioaren diru- laguntzak(1)	CPENen ekar- penak	Epe luzeko zor- petzea(2)	Ondare garbia	Enplega- tuen batez besteko ko- purua
CEIN	93	840	200	13	1.203	37
CNAI	-107	-	110	-	44	23
CAT	-987	-	-	73	50.064	3
GAN	67	407	-	5	3.667	108
Intia	-630	6.352	-	7	3.094	196
Nasertic	539	197	-	-	10.859	112
Nasuvinsa	886	7.118	2.500	10.000	244.458	132
NICDO	-6.036	2.020	4.915	6.738	64.456	59
Nilsa	-	-	-	-	902	47
Potasas de Subiza SAU	2.147	-	-	-	7.631	-
Salinas de Navarra SA	2.512	-	-	-	20.176	71
Sodena	-5.242	5.188	7.000	41.491	64.500	23
Start Up Capital Navarra SA	31	-	-	-	1.097	-
Tracasa	351	-	-	-	10.297	63
Tracasa Instrumental	392	13	-	-	25.230	398
CPEN	-11.704	-	-	-	465.448	12
<b>Guztira(3)</b>	<b>-17.688</b>	<b>22.135</b>	<b>14.725</b>	<b>58.327</b>	<b>973.126</b>	<b>1.284</b>

(1) Zutabe honetako datu batzuk ez datoz bat NFKAk bere oroitidazkian emandakoekin; hemen emandako datuak NFKAk sozietateei eman dizkien diru-laguntzei buruzkoak dira, sozietateek emaitzetara egotzi dituzten kontuan hartu gabe.

(2) Zorpetzean, ez dira sartzen taldeko enpresekiko eta enpresa elkartuekiko zorrak.

(3) Bateratu gabeko datuak.

CPENen enpresa taldearen osaera, honako hau zen kontabilitate-bateratzearen ondorioetarako:

CPEN Taldearen osaera	2019	2020
Menpekoak-Sozietate publikoak	16	16
Elkartuak eta talde anitzekoak	16	13
Parte hartutako beste batzuk	56	56

Kasu honetan, enpresa-taldea osatzen duten sozietateen kopurua hirutan mu-  
rritzitu da elkartekidetzat eta talde anitzekotzat jotakoen kasuan, 2020an ez baitira  
sartu Mondragón Navarra SPE SA, Albyn Medical SL eta Iden Biotechnology  
SL.







Honako hauek dira Nafarroako enpresen sektore publikoaren 2020ko adierazle nagusiak eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa:

CPEN Taldearen adierazle bateratuak	2019	2020	(milakotan) 2020/2019 al- dea (%)
Ondare garbia	655.504	656.107	-
Epe luzerako zorrak	65.473	58.355	-11
Pasibo arrunta	94.999	61.198	-36
Maniobra-funtsa	273.258	286.260	5
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	132.258	123.739	-6
Negozio-zifraren zenbateko garbia	176.339	144.297	-18
Negozio-zifraren ehuneko, NFKArekin batera egin- dakoa	32	36	13
NFKAtik jasotako kapital-dirulaguntzak <sup>(1)</sup>	3.974	5.212	31
NFKAtik jasotako ustiapeneko dirulaguntzak	11.200	16.923	51
Langile-gastuak	61.502	64.738	5
Ustiapeneko emaitza	9.916	1.607	-84
Ekitaldiko emaitza bateratua	7.160	-7.714	-208
Sozietate nagusiari esleitutako emaitza	6.814	-8.342	-222
Hirugarrenei emandako abalak eta bermeak <sup>(2)</sup>	67.046	66.269	-1
CPENeko Administrazio Kontseiluko ordainsariak	7.7	7	-9
CPENeko Goi zuzendaritzako ordainsariak <sup>(3)</sup>	-	16.1	-
Goi zuzendarien batez besteko kopurua <sup>(2)</sup>	15	10	-33

(1) Zerga-eraginaren aurretiko zenbatekoa.

(2) Soilik menpeko enpresei dagokienez, bateratzean integrazio orokorraren bidetik sarturik.

(3) 2020ko urriaren 1ean zuzendari nagusi bat sartu zen CPENen (haren eginkizunak Administrazio Kontseiluak betetzen zituen).

Datu horiek aztertuta, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

- 2020ko epe luzeko zorrak ehuneko 11 txikiagoak dira aurreko ekitaldikoak baino, eta 58,36 milioi euro egiten dute guztira.

- 2020ko pasibo korrontea ehuneko 36 gutxitu da 2019koarekin alderatuta, eta 61,20 milioi eurokoa izatera iritsi da.

- NFKAtik 2020an jasotako diru-laguntzak 22,14 milioi eurokoak dira, 2019koa baino ehuneko 46 handiagoak.

- Ekitaldiko emaitza bateratuak eta sozietate nagusiari esleitutakoak okerrera egin dute nabarmen 2020an, ehuneko 208 eta ehuneko 222 jaitsi baitira, hurrenez hurren, eta balio negatiboak izan dituzte 2019ko balio positiboekin alderatuta.

Beherakada horren arrazoi nagusia COVID-19aren krisia izan zen, sozietateen emaitza 2019koa baino nabarmen txikiagoa izan baitzen, urte hartan, gainera, enpresa-taldeak diru-sarrerak lortu baitzituen enpresa partaidetuen salmentatik.

Sozietate publikoek urteko kontuen auditoria aurkeztu dute, eta guztiek aldatarik gabeko iritzia ageri dute.

2021ean, enpresa publikoek legeria betetzeari buruzko auditoretza egin dute, 2020ko ekitaldiari dagokionez. Auditoretza hori kanpoko enpresa pribatu batek





egin du. Auditoretza horien helburuak izan ziren honako alderdi hauek egiazta-tzea: Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen betetzea, zorpetze-eragiketei da-gokienez; obrei, hornidurari, laguntzari eta obra publikoen eta zerbitzuen ema-kidei aplikatzekoa zaien kontratazio-araudiaren betetzea; langileen kontratazioei eta ordainsari-sistemei buruzko araudiaren betetzea. Gardentasunari buruzko Foru Legearen 19. artikuluko lehenengo eta bigarren puntuetan eskatutako infor-mazioa argitaratzea. Honako hauek dira auditoretza horien emaitzak:

a) Zorpetze-eragiketei dagokienez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den arau-dia bete dela, oro har.

b) Kontratazio administratiboei dagokienez, 13 gorabehera antzeman dira 16 sozietateetatik bostetan. Hona hemen:

- Bidegabeko kontratazio-prozedurak erabiltzea, zenbatekoa lau sozietatetan kontuan hartuta.

- Lizitazio-prozeduretan (iragarkia edo epez kanpoko argitalpena, epez kan-poko kontratuak formalizatzea eta Europako kontratazio-agiri bakarraren formu-lario-eredurik ez egotea) lau sozietatetan ezarritako baldintzetako batzuk ez be-tetzea.

Gainera, salbuespenik kontuan hartu gabe, hiru arreta-dei egiten direla adie-razi nahi dugu: bi dei egiten dira, bi COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoera dela-eta larrialdi-prozedura erabiltzeari buruzkoak, eta beste bat, jasota ez zegoelako kontratatutako hornitzaile bat zela zerbitzu hori eman zezakeen ba-karra.

c) Langileen kontratazioen eta ordainsari-sistemen berrikuspenetik ondorioztatzen da, oro har, araudia betetzen dela, baina zazpi salbuespen aipatzen dira bost sozietatetan, hauek lotutakoak: kontratazioko birjarpen-tasaren muga gainditzearekin (lau sozietate<sup>2</sup>), zuzendarien ordainsariarekin (sozietate bat), aldi baterako kontratazioa-rekin (sozietate bat) eta kontratazioko publizitatearekin (sozietate bat).

d) Langileen kontratazioa eta ordainsari-sistemak berrikusita, ondorioztatu da ezen, oro har, araudia bete egin dela.

e) Gardentasunari buruzko Foru Legean eskatzen den informazioaren argitalpena betetzen dela berrikusita ondorioztatzen da, oro har, araudia betetzen dela.

---

<sup>2</sup> Salbuespen horien artean sartzen da sozietate baten kasua, nahiz eta kontratazioak justifikatuta dauden, 13 pertsona kontratatu baitziren mugagabe, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren estatuko erakun-dearen errekerimendu baten bidez. Gainerako sozietateei dagokienez, azalpen bat eman da txosten honetako VI.5 epigrafean.





### Fundazio publikoak

Hurrengo taulan, 2020ko fundazio publikoei buruzko datu agregatu batzuk erakutsiko ditugu, 2019ko datuekin alderatuta. IdiSNA Fundazioaren datuak ez dira sartu, haren kontuak ez daudelako auditatuta, ez daukagulako beharrezko daturik eta formalki ez direlako egin fundazio publikotzat hartu ahal izateko izapide guztiak:

Adierazlea	2019	2020
Ondare garbia	2.799	3.284
Epe luzeko zorra	4.671	6.801
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	18.950	17.678
Nafarroako Gobernutik jasotako dirulaguntzak	12.561	10.920
Langile-gastuak	10.216	11.300
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	6.360	8.833
Maniobra-funtsa	5.885	7.876
Ekitaldiko soberakina	360	410
Goi karguen kopurua (A)	5	5
Gainerako enplegatuen batez besteko kopurua (B)	217	267
Langileen kopuru osoa (A+ B)	222	272

Txosten hau idatzi den egunean, Nafarroako Ondare Historikoa Kontserbatzeko Fundazioaren urteko kontuak ez dira ikuskatu; gainerako bost fundazio publikoen iritzi mota ez da aldatu. Bestalde, Baluarte fundazioari buruzko txostenean, azpimarra-paragrafo bat badago haren ondare garbi negatiboari buruz eta COVID-19aren ondoriozko krisiak fundazioaren egoeran eragina izateari buruz; horri dagokionez, entitate fundatzaileak jada berariaz adierazia du laguntza finantzarioa emanen duela konpromisoen eta ordainketa-betebeharren betetzea ahalbidetze aldera eta eragiketen jarraitutasuna segurtatze aldera.

Enpresa publikoekin bezala, 2021ean amaitu zen 2020ko legezko tasuna betetzeari buruzko auditoretza, sei fundazio publikoetan egin zena (IdiSNA Fundazioan izan ezik), enpresa publikoetarako deskribatutako helburu bereberekin enpresa pribatuak kontratatuz, nahiz eta diru-laguntzen kasuan haien izapidetze zuzena egiaztatzen den eta ez ematea. Hauek dira auditorien emaitzak:

a) Zorpetze-eragiketei dagokienez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela, oro har.

b) Administrazio-kontratazioei dagokienez, hiru salbuespen aipatzen dira sei fundazioetatik hirutan, hiru fundaziotan zenbatekoa kontuan hartuta, bidegabeko kontratazio-prozedurak erabiltzearekin lotuta.

c) Langileen kontratazioak eta ordainsari-sistemak berrikustetik ondorioztatzen da, oro har, araudia betetzen dela, baina hiru salbuespen aipatzen dira aldi baterako kontratazioarekin (fundazio bat) eta kontratazioaren publizitatearekin (fundazio bat) lotutako bi fundaziotan.





d) Langileen kontratazioa eta ordainsari-sistemak berrikusita, ondorioztatu da ezen, oro har, araudia bete egin dela.

e) Gardentasunari buruzko Foru Legean eskatzen den informazioaren argitalpena betetzen dela berrikusita ondorioztatzen da, oro har, araudia betetzen dela.

Era berean, eta salbuespenik kontuan hartu gabe, bi arreta-dei egiten dira bi fundazioetan, funtzionarioentzat onartutako soldata-igoeraren gainetik dauden langileen-tzako soldata-igoerarengatik, lanpostu jakin batzuen ordainsariak haien berezitasunetara egokitzeko berariazko hitzarmenaren aplikazioa kontuan hartuta. Aukera hori araudian jasota dago.

*Gure aholkua da behar diren kudeaketa- eta kontrol-neurriak ezarri behar direla enpresei eta fundazio publikoei buruz egindako legezketasun-auditoretzetan detektatutako gabeziei konponbidea emateko.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2021eko azaroaren 25ean

Lehendakaria,  
Asunción Olaechea Estanga





## 2020ko Kontu Orokorraren Oroitidazkiaren laburpena

